



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

UDAL PLENOA
Ez ohiko Bilkura

BILKURA DATUAK

EGUNA: 2016/03/22	TOKIA Udaletxea
HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 18:00 - 21:20	

BILDUTAKOAK:

- Lehendakaria: María Ubarretxena Cid (EAJ-PNV)
- Zinegotziak: Ibon Arrupe Aldecocca (EAJ-PNV)
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)
Ander Garay Zabaleta (EAJ-PNV)
Amaia Ceciaga Garmendia (EAJ-PNV)
Juan Karlos Garitano Ezkurra (EAJ-PNV)
Amaia Azpiazu Aramburu (EAJ-PNV)
Anuska Ezkurra Zubizarreta (EAJ-PNV)
Eneko Barberena Mondragon (EH BILDU)
Amaia Larrañaga Galdos (EH BILDU)
Eneko Fernandez Ortiz de Luzuriaga (EH BILDU)
Maialen Zabaleta Madinabeitia (EH BILDU)
Jose Luis Encinas Jose (EH BILDU)
Itxaro Artola Lizarralde (EH BILDU)
Urki Larrea Ibabe (EH BILDU)
Oscar Garcia Horrillo (PSE-EE)
Victoriano Fuentes Noguera (PSE-EE)
Anabel Legaz Canflanca (PSE-EE)
Igor Urizar Murgoitio (Baleike)
Eva Abuin Bideburu (Baleike)
Juan Luis Merino Sanabria (Irabazi Arrasate)
- Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta
- Beste funtzionario batzuk: Iñaki Balzategi Garai, Kontuhartzailea.

BILDU EZ DIREN
UDALKIDEAK:



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

BERTARATZE
ETA IRTEERAK:

Bilkura hasi denetik bukaeraraino ez da bertaratze zein irteerarik izan.

M. UBARRETXENA (Lehendakaria): Arratsaldeon denoi, gaurko plenoari hasiera emango diogu eta hasiera emateko gaur Bruselaren gertatutako atentaei buruzko adierazpen instituzional bat irakurriko dugu.

Arrasateko eta adierazpen instituzionala irakurri eta gero minutu bateko isilunea egingo dugu.

Arrasateko udalak gaitzespen irmoa adierazi nahi du gaur goizean Bruselan gertatutako atentatuen aurrean izan ere eta hiriburuko erdiguneko metroan hainbat leherketa izan dira eta hildako eta zauritu ugari eragin dituzte Arrasateko udalak erabateko irmotasunez gaitzesten du indarkeria terroristaren basakeria eta dolumina eta elkertasuna helarazi nahi die biktimen senide eta hurbilekoei.

Eta orain bai hasiera emango diogu lehenengo puntuarekin.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

2016ko otsailaren 2ko bilkuretako aktak, aho batez, onartzen dira.

M. UBARRETXENA (Lehendakaria):

Eta mozioekin hasi baino lehenago bai gustatuko litzaidake esatea Bozeramale Batzordean ostegunean hitz egindakoaren harira Pleno honek edo udaletxe honek badaukala euskara plan bat onartuta bueno gu kontziente garelako udalbatza honetan euskaraz ez dakixen pertsonak ere badaudela eta gai hau hizkuntzaren gaia sentsibilitatez tratatu beharreko gai bat dela baina egia dela baita ere, ez dela lehenengo aldia gobernutik edo gure taldetik esfortzu bat eskatzen dela euskarari dagokioenean eta oraingo honetan ere mozioei sarrera ematerakoan hainbat mozio etorri direla erdera hutsean.

Bai eskatzen duguna da bueno euskal herrian bizi garenez eta euskara denez gure hizkuntza ba esfortzu minimo bat egitea eta gutxienez mozioak elebrietan aurkeztea talde ezberdinek eta bueno ikusten dudanez ba orain arte ez dela bete nahiz eta ia bost aldiz eskatu dugun esfortzu hori udalbatzako kide guztiei, bueno ba berresten dugu hemendik aurrera erdera hutsean etortzen diren mozioren ez dela onartuko. Eta orain bai mozioekin hasiko gara.

2.-AIRBUSEKO 8EN ALDE EGITEKO ETA KODE PENALEKO 315.3 ARTIKULUA
INDARGABETZEKO MOZIOA, IRABAZI, UDAL TALDEAK AURKEZTUA.
(2016SMOZ0002)

Juan Luis Merino Sanabria jaunak, Irabazi-Arrasate (Ezker Anitza IU, Equo, Independientes) udal taldeko bozeramailea, mozio hau aurkezten du:



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

AIRBUSko 8EN ALDE EGITEKO ETA KODE PENALEKO 315.3 ARTIKULUA INDARGABETZEKO:

JUSTIFIKAZIOA

Grebarako eskubidea baliatzea, zeina funtsezko eskubidea baita eta ezin dugu alde batera utzi, demokratikoa eta baketsua izan da, eta da, hiru hamarkadatik gora, izan ere, egoera askotan egin da, hala nola greba orokorretan, arlokakoetan edo enpresakoetan.

Langileen eskubide honen errekonozimendua, beren interesak defendatzeko, ez da bakarrik ematen gure ordenamendu juridikoan. Oinarrizko Eskubideei buruzko Europako Gutunak bere baitan jasotzen du berariaz; Nazio Batuen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturelei buruzko Nazioarteko Itunak hala bermatzen du eta Nazioarteko Tratatu eta Itun askok eta askok grebarako eskubidea aitortzen dute langileen eta haien antolatzaileen funtsezko eskubide bat moduan.

1978ko Konstituzioa aldarrikatu zenetik, igaro ditugu hiru krisialdi ekonomiko eta industria birmoldatzeko prozesu gogorak, eta eskubide hori baliatzeak erabilera arduratsua du ezaugarri; horren ondorioz ez da izan jardun penalik eskubide hori baliatu dutenen aurka.

Kode Penaleko 315.3 artikulua erabiltzea ez dago justifikatuta eta neurritz kanpoko da, eta grebarako eskubidea jartzen du XIX. mendean, izan ere, garai hartan zigortu eta jazarri egiten zen. Informazio piketeetan parte hartzea da eskubide aitortu bat gure legerian: ez da delitu bat, eta greban parte hartzen duten langileak identifikatze hutsa ezin da izan arrisku bat delitu bat inputatzeko, delitu bat kartzela zigorraz zigortua. 300 pertsona baino gehiago auzipetu dira. Epaitutako kasu ugaritan pertsonak identifikatzen dira identifikatu zirelako beren-beregiz, nahita, Airbus-en kasuan bezalaxe.

Orain AIRBUSeko zortzi sindikalista horiek, auzipetuak, epaiketa bat izango dute, delitugileak izango balira bezala, leporatzen diete delitu bat, langileen eskubideen kontra eta greba baliatzeagatik, eta eskatzen dute bakoitzarentzat 8 urte eta hiru hileko kartzela zigorra.

Horregatik, Irabazi-Arrasate udal taldeak mozio hau proposatzen du, osoko bilkuran eztabaidatzeko

MOZIOA

1 – Guk, Arrasateko Udaleko osoko bilkuran, gure babes adierazten diegu AIRBUSeko zortzi sindikalistei, haien zintzotasunaren konfiantzan, eta aitortzen dugu haien lan handia langileen alde.

2 - Guk, Arrasateko Udaleko osoko bilkuran, konpromisoa hartzen dugu gure eskura dauden bitarteko guztiak erabiltzeko greba eskubidearen alde eta langileen gainerako eskubideen alde, bai eta herritarren adierazpen askatasunaren alde ere.

3.-Guk, Arrasateko Udaleko osoko bilkuran, hauxe eskatzen diogu Espainiako Gobernuari:

-Kendu ditzala karguak artikulua horren ondorioz epaituko dituzten pertsonen eta sindikalisten aurka.



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

-Bultzatu ditzala behar diren legegintza ekimenak, egoera hau zuzendu dadin, beste batzuen artean, Kode Penaleko 315.3 artikulua indargabetzea, Zuzenbideko Estatu Sozial eta Demokratikoaren legitimitatearen beraren alde.

J.L MERINO (IRABAZI):

Bueno decir que los 8 de Airbus fueron encausados en una huelga general que hubo el 29 de septiembre de 2010. El juicio ya se ha celebrado han quedado absueltos pero no hemos querido retirar esta moción porque lo que queríamos remarcar era el artículo 315.3 del código penal en el cual castigaba o castiga gravemente el derecho a la huelga de los trabajadores y las trabajadoras ¿no? Ese el motivo por la cual no hemos querido retirar pero los 8 de Airbus han sido absueltos. ¿no?

Por lo demás bueno

A. EZKURRA (EAJ-PNV):

Arratsaldeon. Alkate andrea, zinegotziok, herritar guztiok gaur herritar asko, arrasatear asko bildu dira udalbatza honetan arratsaldeon guztioi bueno mozio honen aurrean, egia esan, oraindik gure poztasuna baita zortzi sindikalista langile hoiek aske daudelako guk ere mozioak defendatzen dituen edukiekin edo fondorearekin noski bat egiten dugu, bai greba eskubidearekin eta langilegoaren eskubidearekin baina bai esan beharra daukaguna da, mozio honen aurrean ba askotan urruna arrotza egiten zaigula ba ez dakit badirudi madriletik zuzenean etortzen zaizkigun mozioak direla hona Arrasateko udaletxera eta bueno arrotz egiten ez gara identifikatzen edo empatizatzea mozioarekin berarekin zaila egiten zaigu, dena dela gure batasuna langilegoarekin eta eskubideekin hor dago eta horregatik gu abstenitu egingo gara mozio honen aurrean.

J.L MERINO (IRABAZI):

Si bueno decirle a la portavoz del PNV que también ahora hemos empatizado hace un momento con un minuto de silencio con las víctimas del atentado en Bruselas. Los trabajadores son universales no tenemos los trabajadores somos la misma clase es igual que sean de Getafe que sean de aquí, por lo tanto,

O. GARCIA (PSE-EE):

Arratsaldeon guztioi. Hasteko eta mozia hau alde batera utzita gustatuko litzaidake euskaraz esatea ez nagoela batere ados eduki duzun interbentzoarekin Maria. Legeak bermatu egiten dizu nahi duzun hizkuntzan hitz egitea baita hemen udaletxe honetan sarrerak ematea eta horregatik hemendik aurrera nire hizteko hizkuntza izango da gaztelera.

Con lo cual y ya entro en la moción y en solidaridad contigo Juan Luis, por lo que paso el otro día respecto al tema lingüístico decirte que esta moción ya te dije que no estábamos muy de acuerdo con la redacción si en el fondo porque creemos que el derecho a la huelga es algo fundamental para toda



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

persona no solo trabajadores de clase obrera como podemos ser tu o puedo ser yo, sino para todos los trabajadores por lo cual mi partido va a votar a favor de la moción. Gracias.

E. BARBERENA (EH-BILDU):

Arratsaldeon denoi. Bueno ba bi kontu hasteko Oskarrek aipatu duen gai linguistikoarekin be bai bueno guk babesten dugu hein handi baten udal honek esukaraz funtzionatzea baina kasu honetan uste dugu gaia askoz ezker eskuarekin landu behar dela eta gu be bai osteguneko episodioa nahiko fuertea izan zan eta zentzu hortan bueno gainera aintzat hartuta badauela beste batzordeburu bat elebakarra eta zentzu hortan hizkuntzan gaia eta hizkuntzaren erabileran inguruko kezka orokortua dela ez?

Mozioari dagokionean bueno guk be hainbaten eduki genuen eztabaida haber madrileko langileen mozioa bat hemen udalean aurkeztea ba ote zeukan zentzurik ba bueno azkenean ikusi genuen baietz eta apur bat elkartasun internazionalista aplikatuz guk alde bozkatuko dugu.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Ba hizkuntzaren gaian gogoratzen dizuet pleno honetan ere eskatu zela denon gaineko esfortzua, hau ez dela, lehenengo aldia, ezker eskuarekin erabiltzen edo gai hau tratatzen saiatu garela zuek oso ondo dakizuenez bozeramale batzordean bosgarren aldiz ateratako kontu bat. Ezkerreko eskuan bost alditan saiatu izan gara hau bideratzen. Aurreko legegaldiarekin konparatuta erdera bueno legealdi honetan asko zere gehiago erabiltzen da. Horrek baldintzatu egiten du hein handi batean udal honen jarduna eta pentsatzen dugu eskatzen duguna ez dela ilargia. Elebietan eta sentsibilitate falta bat iruditzen bazaizue arrasateko udaletxeak eskatzea gutxienez minimo batean mozioak elebietan aurkeztea ba bueno ba nik ezin dut sinistu baina holan izango da eta orduan mozioaren gaineko bozkaketa egitera pasatuko gara.

Bertaratuak	21	
Aldeko botoak:	13	EH-BILDU (7), PSE-EE (3),BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)
Kontrako botoak:	0	
Abstentzioak:	8	8 EAJ-PNV

Beraz, mozioa onartzen da.

3.- BALEIKEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ARRASATERAKO GARDENTASUN WEB ORRI BATEN PROPOSAMENAREN INGURUKOA

Baleike udal taldeak mozio hau aurkezten du, eztabaidatu eta onartzeko, web espezifiko bat sortzeko Arrasatek udalbatzaren gardentasunaren inguruan.



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

PROPOSAMENA ARRASATEN GARDENTASUN WEB BAT EGITEKO

Demokrazia bat eraginkorra izateko eta hala deitu ahal izateko, herritarrek sarbide izan behar dute informazioan eta datuen berri jakiteko, erakunde publikoen lanaren jarraipen bat egin ahal izan dezaten. Asmo horretarako ezinbestekoa da administrazioaren funtzionamendua izatea guztiz gardena, herritarrek bilatu eta aurkitu ahal izateko haien interesekoa.

Hortaz, oinarritzko urratsa ba da helburu hori lortzea, hau da, Arrasateko Udalean gardentasun web bat ezartzea, datu publikoak edozein erabiltzailearen esku jartzeko, jakin dezan eta ulertu dezan zelan funtzionatzen duen udal erakundeak, zer kontratu eta azpikontratu sinaturik dituen, aurrekontuaren eta zorraren, lizitazioen eta abarren berri izateko.

Zer bezain garrantzitsua da zelan, eta gai honetan gure iritzia da Arrasateko Udalean bide luzea dugula egiteko. Informazioak bete behar ditu baldintza batzuk, irisgarritasunekoak eta antolaketakoak, horietara iristea erraz eta eroso eskatzailearentzat. Horretarako, proposatzen dugu ez sartzea atal bat Udalaren web orrian, baizik web espezifiko bat sortzea.

Gardentasun web bat ireki eta mantentzeko, frogatuta dago ez dela beharrezkoa kontratatzea langile espezifiko gehiago edo enpresa bat hori egiteko; baina, giza baliabiderik ez dugulako, beharrezkoa izanez gero, ulertzen dugu kristalezko ateak kudeatu behar izatea lehentasuna izan behar dela Udal osoarentzat.

Gardentasun web honek funtsezko oinarri-arau batzuk betetzeko, ulertzen dugu item hauek printzipio gidariak izan behar direla:

A)UDALBATZA

Hautetsiak eta administrazioiko langileak

- Atal honetan sartuta doa informazio bat hauei guztiei buruzkoa: gobernu taldea, udal taldeak, zinegotziak, Administrazioaren behin-behineko teknikariak eta teknikari finkoak (LPZ).
- Alkatearen agenda instituzionala izan behar da publikoa.
 - o Politikariei dagokienez, azaldu behar dira izena, abizenak, karguak, funtzioak eta ordainketak. Komenigarria izango litzateke agertzea haien helbide elektroniko bat herritarrentzat.
- Izendapen librez kontratatutako langileei dagokienez (konfiantzako karguak), zehaztu behar dira izena, abizenak eta karguak. Beste atal batean bereizita, espezifikatu daiteke zer jasotzen duen kargu bakoitzak, aipatu barik zuzenean haren izena.
- Administrazioiko teknikariei dagokienez, LPZ osorik argitaratu behar da, eta atal honetan argitaratu behar da Lan Eskaintza Publikoa, bai eta haren garapena eta exekuzioa ere.



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

- Hobe da leku honetan zehaztea sail bakoitzeko arduradun teknikoak eta politikoak, eta haiekiko komunikazio bide bat.

- Udaleko osoko bilkura

- Leku honetan jasoko dira informazio eta agiri hauek: Gai zerrendak eta osoko bilkuretako aktak, Tokiko Gobernu Batzarreko akordioak eta Udalari eragiten dioten balizko erabaki judizialak.
- Gardentasun maila handiagoak lortze aldera, komeni da osoko bilkurak grabatzea eta igotzea leku honetan.

B) HERRITARREN ETA PARTE HARTZEAREN GUNEA

- Atal honek balioko du herritarrek eta udalbatzak elkarri hitz egiteko, elkar ezagutzeko eta harremana sustatzeko. Horretarako, foro bat egongo da, zeinetan herritarrek iritziak emango dituzten, kezkek eta proposamenak agertu. Aldizka jasoko dira herritarren eta erakundeen ohiko galderak eta eskaerak.
- Halaber, leku bat egokituko da udal taldeek azaldu dezaten zer lan egiten ari diren, eta zer proposamen politiko duten.
- Argitaratuko da katalogo zabal bat, bai Administrazioak ematen dituen zerbitzuei buruz (egoitzak, helbidea, ordutegia, ekipamendua...) bai administrazio prozedurei buruz (tramiteak, epeak, administrazio isilbidea...).

Leku bat gordeko da auzoetako elkarteentzat, non jasoko diren haien proposamenak eta eskariak.

- Informatu egingo da eta bat egingo du herritarren parte-hartzearen orriarekin (Evaren programa), eta funtzionamendua azalduko du eta Gardentasun web-etik aukera emango du elkarreragiteko.

C) KONTUAK ARGI ETA GARBI

- Argitaratuko dira oraingo aurrekontuak, hari dagozkion aldaketak eta udal administrazioari lotuta dauden entitateen aurrekontuak (organo deszentralizatuak, autonomoak,...). Kapitulu honetan, input hauek kontatu behar dira beti: Aurrekontuaren exekuzio egoera, aurrekontua egonkortzeko txostena, finantza zorra, merkataritza zorra, zorpetzea arrasatear bakoitzeko, berankortasuneko txostena eta ordainketaren batez besteko aldia. Halaber, atal honetan argitaratuko da kanpoko auditoriaren txostena.



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

D)ZERBITZUEN KONTRATAZIOAK ETA KOSTUAK

Azalduko da prozedura, osaera eta Kontratazio Mahaiaren deialdiak, eta argitaratuko dira haien aktak unean-unean.

Kontratuak zerrendatuko dira hornitzaileekin, eta horien zenbatekoarekin eta iraupenarekin (bereizi barik kontratuen tamaina).

- Zerbitzuak tasak edo prezio publikoa izanez gero, leku honetan argitaratuko da benetako kostaprezioa.

E)HIRIGINTZA, OBRA PUBLIKOAK ETA INGURUMENA

1.-Hiri antolamendua eta hitzarmenak

- Hemen sartuko da Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (mapekin eta azalpen planoekin), onartzen doazen aldaketekin eta plan partzialekin.
- Zehaztuko dira indarrean dauden hirigintza hitzarmenak eta oraingo hirigintza exekuzioak.
- Lurzoruaren erabilerei eta helburuei buruzko informazioa leku honetan argitaratuko da.

2.- Ingurumena

- Argitaratuko dira udalerriri buruz ingurumen, paisaia inpaktuko azterketak eta ingurumen arriskuko ebaluazioak.

Azalduko dira zer printzipio, programa eta konpromiso hartu dituen Udalak ingurumenari eta iraunkortasunari buruz.

3.-Obra publikoetako iragarkiak eta lizitatzailak

- Informatuko da indarrean dagoen legeriari buruz, Udalaren hirigintza kudeaketaren inguruan, eta argitaratuko dira obra publikoetako agiriak eta lizitazio irizpideak, eta hor sartuko dira aldaketa, berriak eta osagarriak.
- Lizitazio horietara doazen enpresak publiko egingo dira atal honetan, eta aurrerago obra publiko garrantzitsuetan jardun dutenak ere bai.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Norbaitek hitza nahi du?

I.URIZAR (BALEIKE):



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

Pixkat azaltzeko zergatik aurkezten dugun mozio hau maiatzeko hauteskundeetan eragile politiko berriak kopiatuz alderdi guztiek, aho batez, eragin zuten gardentasunaren bandera denek aipatzen zituzten programa kontzeptu honekin baina politika zaharrei gai berriak barneratzea asko kostatzen zaio Arrasateko udal gobernuak argi erakusten duen bezala.

Badakigu udalaren web orrian badagoela hainbat informazio eskuragarri eta baita laster onartuko den udal legeak irizpide batzuk ezartzen dituela zentzu honetan baina uste trinkoa dugu herritarrek gehiago merezi dutela eta horregatik ildo honetan sakontzea ezinbestekotzat dugu.

Hilabeteak daramatzagu web orri bat eskatzen arrasateko hiritarrei zor diegun garbitasunerako konpromezua bete nahian eta beti erantzun bera jasotzen dugu jeltzaleen gobernutik. Gaia jorratzen gabilta, aztertzen ari gara, aurrerago ezarriko dugu baina hainbat eta hainbat aldiz gertatzen den bezala hitzak ezezean gelditzen dira.

Baleike udal talde kideok uste dugu ekintzarako ordua heldu dela, aski da informazioa herritarrengandik at mantentzeaz. Ezer ikuztatzeko borondatea ez badago. Udalak hiritarrei konfiantza eman behar die, hauek eskubidea baidute udal kudeaketaren gorabeherak ezagutzeko.

Ustelkeria ekiditzeko udala herritarrengan hurbiltzeko eta Arrasaten demokrazia finkatu eta gardentasunaren eredu izateko mozioa hau ontzat ematea eskatzen diegu alderdi politiko guztiei.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Eskerrik asko Igor.

A. EZKURRA (EAJ-PNV):

Zuk dinozun moduan Arrasateko udalak gardentasunarekin daukan konpromezua berretsiz 19/2013 legeari lotuta gardentasun ataria sortu zan legeak dion moduan Arrasateko webgunean 2015eko abenduan.

Zuk dinozu hor informazioa zerbait dagoela. Ikusi ba esango dizut dago: hautetsiei buruzko informazioa, konfiantzazko langileen inguruko informazioa, udal langile eta antolabideei buruzko informazioa, legegaldi plana, beste udal plan eta programa batzuk, udal aurrekontu guztiak, urteko kontu guztiak, emandako laguntzak eta dirulaguntzak puntuz puntu, izenpetutako hitzarmen eta kudeaketak, eraginkortasun eta efikazia udal zerbitzuen kudeaketan bueno eta hainbat eta hainbat informazio eta gehiago esango dizut udaletxe honetako talde bat dago teknikoz osaturiko talde bat non lan hau jorratzen ari diren hilabeteetan eta hilabeeteetan. Agian informazioa falta da ba pixkanaka pixkanaka goazen informazio hori sartzen.

Nahi badezute atek zabalik dago egon zaitezte zuek baita ere lantalde horretan. Dago lantalde bat udaletxe honetako teknikari asko dauden ia batzorde edo sail ezberdinekoak aurrera pausoak egiten ari direnak zeren eta honek ere gardentasunak dakar atzetik lan gehigarri bat udaletxe honetako



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

langileentzako eta zuk hor gauza bat harritzen nauena da esaten duzunean zerbitzuen kontratazioa dela eta esango dizut legealdi honetan 19 kontratazio mahai egon dira eta Baleike taldea zuen taldea ez da sekula mahai batera ere etorri eta zuek dakazute eskubidea mahai horretan egotea.

Aurreko legealdian guk geneukan ardura gai honekin eta EAJkoak joaten ginen mahai guztietara eta ez geunden udal gobernuan. Mahai guztietara.beraz, gure botoa mozio honen aurrean ezezkoa izango da.

J.L MERINO (IRABAZI):

Esta moción que presenta Baleike en realidad es una moción bastante ambiciosa, bastante. Trata todos los temas que tenemos que dejar encima de la mesa y que la ciudadanía este informada. Lo que creo que pretende no es plantear todo lo que se trata en esta moción sino que ellos saben que hay una mesa de transparencia y lo que se pretende es un poco impulsar con esta moción que se avance en este tema ¿no? En el tema de transparencia municipal. Nosotros vamos a votar a favor.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Eskerrik asko. Juan Luis

O. GARCIA (PSE-EE):

Yo voy a ser extremadamente breve. Me adhiero a lo que ha dicho Anuska este ayuntamiento precisamente es modelico en la web de transparencia en su implantación y en las formas que esta teniendo para que todo ciudadano que quiere información del ayuntamiento la pueda tener. Eso nos lo debemos agradecer a todos, incluidos vosotros aunque parece que os pilla todo con el pie cambiado y que muchas veces no sabéis exactamente que es lo que hay en ayuntamientos viene algo de Madrid y lo metéis. Pero bueno os vamos a disculpar porque sois nuevos pero bienvenidos a la política compañeros.

E. BARBERENA (EH-BILDU):

Bueno guk egia esan bai honekin eta bai aurreko mozioarekin eskertuko geunken denbora gehiago gaia lantzeko ganoraz ez? nahiko arrapaladan ibiltzen gara ez? Guk eduki dugu zalantzak batez be Merinok ulertu dauen moduan desideratum bat dan edo bada nolabaiteko zehatz eta zorrotz hobatu beharreko testu bat ez? Guk azkenean egin dugun interpretazioa lehena izan da, ez?

Nolabait norabide bat dago gaur egun gauzak egiten dira hori ez dugu ukatzen baina bueno gaia mahai gainean jartzea eta norabide horretan sakontzea interesantea izan leikenez guk baietz emango dugu.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

Bozketara pasatuko gara.

Bertaratuak	21	
Aldeko botoak:	10	EH-BILDU (7), BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)
Kontrako botoak:	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak:		

Beraz, ez da onartzen.

4.- BALEIKE UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, KONTU IREKIEN ETA BANKA ETIKOAREN UDAL ORDENANTZAREN PROIEKTUAREN INGURUKOA. (2016SMOZ0006)

Gardentasunak funtsezko eginkizuna betetzen du demokraziaren eta berritze demokratikoaren kontzeptuari datzekion elementu moduan, izan ere, konfiguratzeko du euskal administrazio publikoaren antolaketaren diseinu berri bat lurralde eremu guztietan, horixe adierazten baitu euskal sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren Lege Proiektuak, euskal sektore publikoan Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Lege Proiektuak eta 19/2013 Legeak, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa lortzeari eta gobernu onari buruzkoa, zeintzuk beren aplikazio eremuan sartzen dituzten Euskadiko toki administrazioa osatzen duten entitateak eta haien ente eta erakunde lotetsiak nahiz mendekoak.

Gardentasun helburu honetan ezinbestekoa da sartzeko banku kontuak, informazioa lortzeko eskubidean sartuta dagoen informazioan, zeina jasotzen den 19/2013 Legean eta lege proiektuetan, une honetan tramitean.

Gainera, begien bistakoa da azken urteotan ari garela pasatzen krisi ekonomiko larria eta luzea, ekarri dituen gizarte ondorio sakonak, non finantza entitateen eginkizuna geratu den ezbaian. Bankuek lagundu dute, beste gai batzuen artean, larregi sustatzen jarduera inmobiliaria, kredituak gutxiago gainbegiratzen, produktu oso toxikoak merkaturatzen,... eta hori guztia erabakigarria izan da bizi dugun krisi ekonomikoarentzat.

Ordenantza hau ematen da udal autoantolaketako ahalaren babesean, aitorturik dagoena 7/1985 Legean, 4. artikuluan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen, eta erregelamendu bidez garatzeko ahalaren babesean, eta, zentzu horretan, Toki Administrazioaren gardentasun berme bat da maila gorenean, izan ere, hor erregulatzen den informazioa lortzea konfiguratzeko du ez hura lortzeko eskubide bidez, herritarrak erabili behar duena eta herritarraren aldetik ekintza bat behar duena, baizik-eta konfiguratzeko du "publizitate aktiboa"ren bidez, hau da, informazio eskura jarrita Arrasateko Udalaren Gardentasunaren Atarian.

Banka tradizionalak parte hartu du eta, aldi berean, sustatu du areagotzea eta elikatzea sistema espekulatuak bat eta aberastasuna pilatzeko sistema bat, gizarte, lan eta ingurumeneko eskubide



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

batzuen kaltetan, eta nahiago izan du bere onura propioa herritarrena baino, eta jarraitzen du ekintza batzuk egiten, ez oso etikoak, hala nola exekututzen etxegabetzeak, inbertitzen armamentu industrietan... Nahitaez behar dugu aldaketa funtsezko bat forman eta tresnetan finantza jarduera eta kreditu jarduera egiteko, mugimendu ekonomikoa sustatzen laguntzeko, finantzaketa sozial eta iraunkor baten bidez, mesede egingo diena herritarren interes orokorrei.

Euskal Autonomia Erkidegoan hainbat taldek, finantza etikoetan interesaturik, 2003an sortu zuten Fiare Fundazioa, herritar aktiboen mugimendu bat eratzeko, banka etiko baten oinarriak ezartze aldera. Gipuzkoan bazkide direnei esker lortu da finantzaketa erakunde etiko eta kooperatibo bat, europar dimentsio batekin. Botere politikoez, haien eskumenen eremuan, lortu behar dute haien politiketan ekonomia solidario eta etikoak sustatzea herritarren zerbitzura.

TITULU BAKARRA

1 Artikulua. Kontu irekiak

Ordenantza honek deklaritzen ditu irekita eta eskuragarri, dagokion gardentasun atariaren bidez, Arrasateko Udalaren banku kontu guztiak, irekita daudenak finantza entitateetan, eta aplikazio eremu subjektibo horretan sartzen dira Udala bera eta haren entitateak eta erakundeak, Udalari lotuak nahiz Udalaren mendekoak.

2 Artikulua. Kontu publikoak

1. Banku kontu ireki eta eskuragarri bat da kontu bat zeinetan edozein herritar sartu daitekeen, Ordenantza honetan xedatutako hitzetan eta baldintzetan sartzen bada.

2. Arau honetako aplikazio eremuan sartuta dauden entitateek eta erakundeek publiko egingo dituzte banku kontuak, haien titularrekoak, eta banku kontuen saldoa, Ordenantza honetan xedatutako eran.

3. Kasu guztietan, agertu behar dira kontu bakoitzaren datu hauek:

a) Banku kontuaren mota.

b) Izena

c) Titulartasuna

d) Banku, finantza edo kreditu entitatea eta sukurtsala, hala badagokio, eta kontu zenbakia (IBAN kodea). Edozelan ere, segurtasun arrazoiengatik, kontu zenbakia agertuko da behar bezala kodetuta, argitaratuko dira identifikatzen duten lehen lau digituak eta azken lau digituak.

e) Saldo orokorra.



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

Arauz erakunde eskudunek ezartzen duten beste edozein, haien autonomiaren eremuan.

4. Informazio publiko hori lortzeko eskubidean ez dago sartuta kontuaz eragiteko aukera.

5. Informazio hori eskuratzeko eskubide horren mugak zehazten dituzte 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koa, datu pertsonalak babesteari buruzkoa, eta beste lege batzuek, berariaz erreserbatzen badute daturen baten sekretu izaera.

6. Informazioa eguneratuko da hiruhileko bakoitzaren azken egunean, eta adieraziko du aurreko hilaren azken egunaren balio eguna.

3 Artikulua. Politikak banka etikoa edo soziala sustatzeko

Udalak, bere eskumenen eremuan, politika batzuk erabakiko ditu banka etikoa edo soziala sustatzeko.

Politika horiek gauzatuko dira, bereziki, neurri hauek hartuta:

- a) Lankidetzeta eta laguntza mekanismoak ezartzea banka etiko edo sozialarekin.
- b) Pasatzea bere kontu eta operazio guztiak edo horietako zati bat banka etikor edo kooperatibora.
- c) Ez irekitzea banku kontu berririk, ezta ere, kontratatzea produktu berririk betiko finantza entitateetan, frogatzen ez bada behar teknikoa dagoela.
- d) Sustatzea eta sentsibilizatzea gipuzkoarrak banka etikoaren erabilerari eta onurei buruz.
- e) Sustatzea banka etikoak eta kooperatiboak sortu daitezzen Gipuzkoan.

4 Artikulua. Non argitaratu

Gardentasuna izan behar duen informazio guztia, Ordenantza honetan xedatua, argitaratuko da Arrasateko Udaleko Gardentasun Atarian.

5 Artikulua. Aurkezpena.

1. Informazioa argi eta garbi aurkeztuko da, egituraturik eta ulertzeko moduan herritarrek, eta, ahal dela, formatu berrerabilgarrian.

2. Banku kontuetako datuetako sarbidea, Ordenantza honetan xedatutako terminoetan, egokituko zaio, segurtasunari eta elkarreragingarritasunari buruz, 3/2010 Errege Dekretuan xedatutakoari,



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

urtarrilaren 8koa, erregulatzen duena Segurtasuneko Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoaren eremuan, eta 4/2010 Errege Dekretuan xedatutakoari, urtarrilaren 8koa, erregulatzen duena Elkarreragingarritasuneko Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoaren eremuan.

6 Artikulua. Formatua.

1. Argitaratutako datu guztiak egongo dira «datu ireki»en formatuan, hirugarren batzuek, toki administrazioakoak ez direnak, jaisteko, berriro erabiltzeko eta berriro banatzeko moduan egon daitezten.

2. Formatu horrek, aurreko atalean deskribatua, kasu egingo die elkarreragingarritasuneko Eskema Nazionalan ezarritakoari, 4/2010 Errege Dekretuan xedatua, urtarrilaren 8koa, erregulatzen duena Elkarreragingarritasuneko Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoaren eremuan, eta 1495/2011 Errege Dekretuan xedatutakoari, urtarrilaren 24koa, garatzen duena 37/2007 Legea, azaroaren 16koa, sektore publikoaren informazioa berriro erabiltzeari buruz estatuko sektore publikoaren eremurako.

7 Artikulua. Bultzada eta jarraipena

Ogasunari buruz eskumena daukan zinegotziari egokituko zaio bultzatzea Ordenantza hau abian jartzea; edozelan ere, haren aplikazio eremuko instituzio, entitate eta erakundeek behartuta daude neurriak hartzera, Ordenantzaren aginduak bete daitezten, beren eskumen eremuetan.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Garatzeko ahalmena

Alkateak ahalmena izango du agindu batzuk eta jarraibide batzuk emateko, beharrezkoak izanez gero Ordenantza hau egoki interpretatu, garatu eta aplikatzeko.

Bigarrena. Indarrean sartzea

1. Ordenantza hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2. Hilabeteko epean, Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, kontu guztiak publiko egingo dira Gardentasun Atarian, Ordenantza honetan xedatutako terminoetan.

3. Sei hileko epean, Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskura izango dira mekanismo batzuk, behar-beharrezkoak direnak kontu bakoitzaren saldo orokorra lortu ahal izateko.



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Norbaitek hitza nahi du?

I. URIZAR (BALEIKE):

Mozio hau ere gardentasunaren ildoan aurkezten dugu. Ustelkeria inongo zalantzarik gabe herritarrek politikariengan daukaten mesfidantzaren arrazoia handienetariko bat da eta hau saihesteko heramintak eta aldaketak egitea gure lehentasunetako bat bilakatu behar dugu. Informazioa eta herritarrekiko interlokuzioa ez dira soilik beharrezko demokraziaren eta erabakitzeke eskubidearen berme zuzenak dira. Herri informatu batek soilik hartu ditzakeelako errealitatean oinarrituriko erabakiak.

Helburu hauek burutu ahal izateko oinarritzko pausoa deritzogu udalak dituen kontuak herriari irekitzea eta publiko egitea, modu erraz eta edonorentzako eskuragarri jarritz. Mozio honen bigarren eredu berri bati ekiteko lehen urratsak ematea da. Jada ez da eztabaidagarria pairatzen ari garen krisiaren jatorri nagusia finantza erakunde eta bankuen diru grina izan direla.

Estatuen erregulazio ezak eta aberatsen gutziak eragindako sarraski ekonomiko hauek gutxien duen gehiengoaren sorbaldata ezarri ditu eragin latzenak. Hainbat borroka daude gai honen inguruan egiteko eta hauetako bat banka eredu berri bati abiada ematea. Halako krisi bat etorkizunean errepika ez dadin egin beharreko jardun bat banka etiko eta zentzudun baten alde bultzatzea da eta ildo honetan administrazio publikoak eredu izan behar dira.

Aipatu ditugun bi helburu nagusi hauek lortzeko intentzioarekin aurkezten dugu mozio hau.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria) :

Eskerrik asko Igor. Norbaitek hitza nahi du.

A. EZKURRA (EAJ-PNV):

Egia esan, mozio hau ez dakit bat etorriko zareten besteekin baina bueno eduki sendoa dauka benetan ez dakit da pixkat nahasia eduki garrantzitsua dauka baina uste dut mozio honek hiru pauso aurrera egin duela mahai honetara heldu danean.

Zeren eta hor puntuetako batzuk informazio gisa puntuetako batzuk hor esaten zuen sustatzea banka etikoa eta kooperatiboa bueno agian suposatzen dut jakingo duzula., arrasateko udaletxeak badu ia banka etikoan FIAREN partehartzea agian ogasun batzordera eramango bazenu gai hau hor tratatuko zan zeren eta hori da beste gauza bat. Hona etorri zaigu gainera, izenak harritu nau udal ordenantzaren proiektu bat dakartzute mozio biak udal ordenantza bat proiektu bat gero ondoren daukagu ordenantza



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

baten hasiera prozedimendua eta moziara dator udal ordenantza proiektua bat eta hemen guztiori ondo iruditzen zaigu. Hori aurretik joan dadila.

Eta hori dinot ogasun batzorde bat daude non zuek joaten zareten eta uste dugu ogasun batzordean da lehenik gai hau tratatu beharrekoa egia da dela gai bat sendoa aztertu beharrekoa, adostu beharreko eta ikusi beharko duguna udaletxe moduan ze eskumen daukagun eta noraino heldu gaitzkeen.

Orduan dinot uste dut mozio honek ez daukala zentzurik gaur egun mahai honetan egotea uste dut lehenago beste pauso batzuk jorratu beharko dituelako. Beraz, gure alderdiaren bozka mozio honen aurrean aurkakoa izango da.

O. GARCIA (PSE-EE):

Si bueno respecto a la moción el fondo en principio no me parece mal que un ciudadano tenga acceso a las cuentas municipales como concepto me parece incluso interesante y necesario en esta nueva política que tanto defendéis. Ahora antes os he dicho bienvenidos a la nueva política, bienvenidos a la política, quiere decir que antes de venir a un pleno con un proyecto de ordenanza quizá sería bueno que supieses como funciona un ayuntamiento, como concepto también. Vale el empezar la casa por el tejado suele tener malas consecuencias.

Yo entiendo que desde Madrid os llegan cien mil mociones y cien mil cosas que se hacen en el ayuntamiento de Carmena, en el de Ada Colau, yo lo entiendo perfectamente si además me parecen ayuntamientos muy simpáticos y buenos dirigentes, simpatiquísimos los prefiero antes que ayuntamientos del PP, por supuestísimo pero lo que hay que hacer es aprenderse la lección y cuando se viene a un ayuntamiento no se viene a estar de broma, ni hacer cosas raras, aquí las cosas se hacen con cierto rigor y ese rigor dice que una ordenanza empieza en una comisión, empieza en una comisión.

Esta lección os la doy gratis las siguientes os las cobro.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria)

Eneko. Isiltasuna mesedez.

E. BARBERENA (EH-BILDU):

Eskerrik asko. Bueno EH Bildu bai ikusten ginun landu beharra zela gaia gainera gogoratu nahi genuen be bai Fiaren hitzarmena aurreko legealdian jarri zena martxan eta faltan bota dugu hemen mozioak planteatzen dituen neurrien eragina aintzat hartuko daberen txosten, diktamen edo bestelako lan bat ez? Eta zentzu hortan geu abstenitu egingo gara.

I. URIZAR (BALEIKE):



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

Bueno lehenengo Anuska esatea beste udaletxe batzuetan euskadin atera dela aurrera mozio hau, orduan gai horri buruz itxita.

Oskar beste aldi batzuetan saiatu gara batzordeetan gauza batzuk aurrera eramaten eta horman kontra aurkitu gara zure batzordean espezialki eta be bai esatea zueri zuek egiten duzuen bezala politika egiteko hobeto da ez saiatzea ez? Beste eredu batean sinisten dugu eta gaur hemen jende askok ikusten daben bezala beste era baten saiatuko gara.

J.L MERINO (IRABAZI):

Más de lo mismo de antes la justificación es la misma prácticamente que pretenden provocar el debate dentro de este ayuntamiento no lo parece ser que no siempre se consiguen en las comisiones y es un primer paso nosotros bueno lo de la banca ética nosotros estamos por la nacionalización de la banca pero bueno pues es un buen paso y nosotros vamos a votar a favor.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Bozketara pasatuko gara.

Bertaratuak	21	
Aldeko botoak:	3	BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)
Kontrako botoak:	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak:	7	EH-BILDU (7)

Ez da onartzen.

5.- EAJ-PNV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ERRESPETU FALTA ETA IRAINGARRIAK DIREN PINTAKETA ETA KARTELEN GAINEKO SALAKETAREN INGURUKO MOZIOA. (2016SMOZ0009)

ARRAZOIAK

Azken asteetan Arrasateko, zein Gipuzkoako (Oñati, Ordizia), eta Arabako (Gasteiz) kaleetan agertu diren pintaketa eta kartel iraingarriak, bake eta bizikidetzaren bidean oztopo bat direla ulertzen dugu.

Hemen kokatzen ditugu, Arrasaten Alkatea eta zinegotzi baten aurpegiekin egindako “asmo txarreko” kartel iraingarriak eta EAJ eta PSE-EE alderdi politikoaren aurka egindako pintaketak.

Baita ere, Oñatiko zein Ordiziako kaleetan agerturiko pintaketa iraingarriak eta orain dela gutxi Gasteizko kaleetan agertutako Mezquita baten aurkako pintaketa.



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

Herritargoak eskatzen duen elkarbizitza eta bakearen bidean oztopoak jartzea eragiten dute horrelako akzio ulergaitzek. Elkarren arteko errespetuari falta bat izateaz gain, bizikidetzakutsatu nahi duten akzioak dira.

Herri demokratiko batean horrelako jarrerak ez dute lekurik eta horregatik Arrasateko Udalbatzari hurrengoak eskatzen diogu:

- 1) Errespetua faltatzen duten eta Iraingarriak diren kartel eta pintaketaren gaitzespena.
- 2) Arrasateko kaleetan agerturiko laidoen gaitzespena eta elkartasuna adieraztea.

A. EZKURRA (EAJ-PNV):

Eskerrik asko. Guk mozio honekin ikusten dezuten bezala mozio testu labur bat eta uste dugu erraz bat simple bat atera dugu. Ez gaia simplea delako ezta gutxiagorik ere uste dugu benetan gaia sakonekoa delako baina mozio honekin eskatzera nator o eskatzera gatoz alderdi politiko guztien elkartasuna eta zuen babesak eta horregatik saiatu gara era errazenean idazten ba hitz jokoetan galdu ez gaitzen eta ez dezuten esan ba bueno honekin ez naiz eroso sentitzen edo horregatik dihoa oso era sinplean baina bai uste dugu eta eskertuko genukeen uste dugulako hemen 21 pertsona gaude eserita gutako pertsona ezberdinek eta alderdi politikoaren aurkako kartel iraingarriak, pintaketak joan direla azkeneko asteetan eta uste dugu aho batez guztiok esan dezagun hau ez dela bidea, hau ez da nahi dugun Arrasate era demokratiko bat, aske batean bizitzeko ba behintzat errespetua joan dadila aurretik. Eta horregatik eskatzen dizuet zuen elkartasuna eta zuen babesak. Mila esker.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Norbaitek gehiago hitza nahi du? Eneko

E. BARBERENA (EH-BILDU):

EH Bilduren izenean apur bat komentau gura nauen hasteko mindu egin gaitula aurreko egunetan barne mahaian gobernuak guri eskatu izana gai honen inguruko posizioamendua. EH bilduk ez dauka zer ikusirik honekin eta zentzu horretan exijitzen dugu holako interpelazio honen aurrean edo frogak aurkeztea edo bestela akusazioak kentzea.

Geu ez gara pertsona insensibleak herri hontan egon diren min eta adierazpen desberdinen aurrean eduki dugun jarreraren inguruan hausnartzen ari gara eta dihardugu eta zentzu hortan ez dugu zalantzarik jatorri denetako indarkeriaren biktimen minei errekonozimendua zor jakela, zalantza barik.



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

Baina kasu honetan ikusten dugu testu hau eta agertzen diren kontu diferenteak aintzat hartuta ba dela sofrito txiki bat eta horren aurrean hainbat kontu ditugu.

Lehenengoa ez ditugu babesten batzokian egin diren pintadak ez jaku gustau.

Bigarren puntuan kartelen kasuan, eztabaida eduki dugu gure baitan ez? Ulertzen dugu noski bertan bere aurpigixa islatu ikusi daben hautetsien haserrea baina eduki dugu eztabaida izan da non hasten dan adierazpen askatasuna eta non hasten dan eraso ez? Gai labankorra baita hau eta adibide batzuekin errazago ulertuko da ez?

Rafael Verak aste honetan esan dau el GAL fue algo util. Epaileak esan dau hori adierazpen askatasunaren baitan sartzen dela baina imajinatzen dut GALen biktimek hontaz zer pentsatuko duten. Aintzane Ezenarrok gidatzen duen eusko jaurlaritzako sailak dio espetxe politikak hildako pertsona kez direla gatazka politikoaren eraginez hil. Charlie Hebdo aldizkariak akordatzen zarete Je sui Charlie, Aylan haur errefuxiatuaren heriotzaren inguruko txisteak egiten dio, hori zer da? adierazpen askatasuna ala umore makabroa onartezina ez?

Eta ia absurdora eraman dezakegu eta da Quevedok Gongorari buru zegin zuen sudurraren olerkia ezaguna, eskolan ikasten duguna zer da? Literatur lan aparta ala eraso onartezina ez?

Zentzu hontan gaia konplikatu da, noski eta luza daiteke absurdoraino. Gu ahalegindu gara besteen azalan jartzen errekonozituz noski gogorra dela norbere aurpegia bertan ikustea Merinok ere aipatzen zauen aurreko baten berak hontaz zerbait badakiela baina ezin dugu onartu testuaren edukia bere artean eta horregatik abstentziora joko dugu.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Norbaitek hitza nahi du?

E. ABUIN (BALEIKE):

Kontu handiz aztertu dugu EAJk aurkeztutako mozioa. Ez zaigu gustatzen aldarrikapen edo kritika politikoak pertsona indibidualetan zehaztea. Noski ez gaudela irain pertsonalen alde eta ez ditugu inoiz justifikatuko baina oso esagurantsua iruditzen zaigu ahoa bizikidetzeta eta errespetz betetzea eta kudeatzeko orduan hitz hauek eduki gabe uztea, berriro diogu ez zaizkigu irainak politika egiteko herraminetak iruditzen eta inoiz ez dugu erabiliko baina inposaketa bidez agintzen duenak oposizioa aurkituko du gizartearen. Eskerrik asko.

J.L MERINO (IRABAZI):

Esta moción no viene de Madrid, viene de Oñati, de Ordizia y de Vitoria y de Arrasate. Nosotros en la comisión ya dijimos personalmente yo dije que rechazaba el tema de los carteles alusivos a personas pero la redacción de esta moción bien ha dicho que es simple cuando ponéis actos



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

incomprensibles yo creo que no tenéis solo hay que salir al balcón para ver si son actos incompresibles.

Una falta de respeto esto es consecuencia de algo, es de otra falta de respeto ¿no? Entiendo yo. Y son también decís que son acciones que pretenden contaminar la convivencia no sé de que lado se pretende contaminar esta convivencia ¿no?

Nosotros repitiendo lo primero que he dicho que rechazo el este nos vamos a abstener.

O. GARCIA (PSE-EE):

No tenía pensar decir nada respecto a esta moción a mi personalmente me parecía pobre. Así se lo transmití a la Alcaldesa cuando me la presentó me parecía que dejaba muchas cosas en el tintero después de la explicación que has dado Anuska puede llegar a entender de que lo que se trataba era de intentar consensuar un voto unánime pero bueno aquí estamos en lo de siempre. Entiendo lo comparto te acompaño en el sentimiento compañero pero yo voy a seguir haciendo lo de siempre, lo de siempre.

Eneko ya va siendo hora de que deis el pasito, ese que os falta, ese pasito de decir lo que esta bien y lo que esta mal y tu mismo lo has reconocido hay cosas que están bien y cosas están mal y yo no entro en si el cartel de marras es sátira política, puedo llegar a entender que es una sátira política. No entro a decir si es libertad de expresión o no lo es, tampoco entro, lo que si entro a los sentimientos personales creo que os los he explicado, creo que es lo dije y la comisión agradezco por cierto vaya por delante que tanto el grupo de Podemos como el grupo de Izquierda Unida diesen su apoyo. Es verdad, que vosotros dijisteis que no os ibas a pronunciar ni lo uno ni lo otro bueno entre dos aguas como siempre.

Me ha gustado lo que has dicho sobre Góngora érase una vez una nariz a un hombre pegado, érase una vez una nariz superlativa etc.... palabras, palabras, palabras, mira para que todo el mundo sea consciente de hasta donde puede llegar todo esto la sátira política es una cosa.

En mi familia ha habido represaliados por el franquismo, en mi familia ha habido asesinados por el franquismo, en mi familia ha habido personas perseguidas por el franquismo igual que en muchas otras familias de Arrasate, muchísimas por unos temas o por otros. Entonces cuando se pone mi cara que es la que estaba en el cartel junto a la de Maria. En un cartel en el cuerpo de un dictador, un asesino, un sanguinario, un señor que no tiene nombre. Yo creo que se roza aparte del mal gusto se roza algo que esta dentro de cada persona que es ese derecho que tiene cada persona a sentirse persona y cuando te ponen la cara en el cuerpo del dictador lo que están haciendo es algo más grave que una sátira política. Por eso ya se que esta vez no vais a votar a favor pero os invito deis ese pasito que os falta y que la próxima vez que pase porque no nos equivoquemos, volverá a pasar, desgraciadamente volverá a pasar.

Os invito que la próxima vez seáis valientes y que deis el paso que os falta.

E. BARBERENA (EH-BILDU):



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

Neuk Piterrek noizean behin entzun dizuet komisioan eta komunikabideetan ere ordenantza hau lantzeko guk ez dugula parte hartu. Nik aldiz esan dezaket, hori gezur beltz bat dela Joseph Webers Hitlerren prentsaren ministroak esaten zuen “una mentira mil veces dicha se convierte en verdad”

Oskar gezurtero zara. Con mayor o menor bueno bale

O. GARCIA (PSE-EE):

Que conste en acta la falta de respeto del concejal Piter Encinas hacia mi que conste en acta.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Bai eskertuko nuke mesedez eskertuko nuke isiltasunarekin amaitzekin dugun eta jarraitu



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

P. ENCINAS (EH-BILDU):

Con mayor o menor éxito lo hemos intentado.

Baina hor egon gara batez ere 17. artikulura iritsi arte. Momento horretan eskatu dugu artikulua osoa kentzeko, bai egia da. Baina orain arte 17. hor egon gara gehitzen edo saiaturen baina oso garbi guretzat izan da 17. artikulua guztiz adierazpena askatasuna mozten dela.

Oso nabarmena da eta kasurik egin diguzue oso garbi geratu da. Hemen ordenantza onartzeko dagoelako.

Oscar. Zuk esaten duzu ordenantza horrek adierazpen askatasuna ez duela murrizten lehenago esan dudana kontrakoa baieztatzen du. Gehi oraintxe bertan easten ari naiz 17. artikulua eta bere subartikulua horrela egiten dutela.

Era berean, Aldaiko horma agertzen denean zuri berehala igartzen zaizu horma ez dela gehien kezkatzen zaizuna. Horrela izango balitz Obenerrekan dagoen hormaren egoera gehiago kezkatu beharko litzaizuke. Jakin nahi duzue zergatik esaten dut hau?

10. metroko arrail bat grieta duelako herrian zehar holako hormak edo antzerakoak daude baina hauek ez diote molestutzen.

Oskar ausart zaitez esan ezazu Aldaiko horman dagoen murala batez ere, torturarena molestutzen dizula, koherentea izatea eskatzen dizut ausart zaitez esateko gai honetan moderatuegia zarela, oso garbi utzi nahi dut esaldi hau ez dela nirea, ez da neuk asmatutakoa baizik eta entzutekoa da ordea.

Guk esaten dugunean ordenantza hau zentzugabekoa dela, beste adibide batean oso garbi ikusi daiteke, edozein pertsona edo erakunde batek adibidez, lantegi batek erreka bota dezake nahi duena edozer gauza horren ondorioz 150 €ko isuna eduki ahal du. Pertsona batek edo edozein erakunde politiko, ekologista, feminista, sindikatuak zultatu gabeko pankarta edo pegatina ipintzeagatik 250 €ko isuna eduki dezake.

Hau zer da? Bueno ya esta.

La libertad no es bonita Oskar la libertad es un derecho.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Mesedez, isiltasuna. Oskar por alusiones. Hitza ematen dotzut. Bukatzen dugun puntu honekin mesedez isiltasuna publikoaren partetik. Eskerrik asko. Oskar zurea da hitza.

O. GARCIA (PSE-EE):

Si creo que tengo bastante mas clase que tu Piter y no voy a insultarte con lo cual lo unico que digo es que el mejor desprecio es no hacer aprecio.



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Bale isiltasuna mesedez. Apunte txiki bat HAPOaren gainean, bueno niri iruditzen zait ere oso ondo egin zela baina bai apunte txiki bat eta da HAPOaren gainean legeak eskatzen duela parte hartze bat egotea eta aholku kontseilu baten eraketa. Legeak eskatzen du baina egia aurreko legealdian onartutako lau ordenantzatan ez zela partehartzerik egin. Nik ez dut esaten aurretik egin ez delako Arrasateko historian zehar sekula ordenantza baten inguruan partehartze prozesurik egin ez delako. Orain ezin denik egin partehartze prozesua, baina bakarrik apunte hori egin nahi nuen. Eta orduan bueno, hasiera baten onartzea bide garbiketa arautzek ordenantza.

....

Bertaratuak	21	
Aldeko botoak:	11	EAJ-PNV (8), PSE-EE(3)
Kontrako botoak:	10	BILDU (7), BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)
Abstentzioak:		

Atsedena eta berriro eseriko gara.

(10 minutuko atsedena egon da)

Bueno jarraipena emango diogu plenoari.

8.- BERRESTEA TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKORDIOA ONARTUZ HITZARMENA SINATZEKO “DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA”REN ETA HAREN KIDE DIREN HAINBAT UDALEN ARTEAN, PROIEKTU BATERATU BAT GARATZEKO, KANPOKO ARGITERIA PUBLIKOKO INSTALAZIOAK BERRITZEKO, FINANTZATUA ENERGIA DIBERTSIFIKATU ETA AURREZTEKO INSTITUTUAK. (2016ZDIR0001)

Udal Plenoak, aho batez, Obrak, Zerbitzu eta Mantentze eta Auzoetako Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Udalaren Zerbitzu Teknikoek aurkeztu dute Tokiko Gobernu Batzarrak, 2016ko otsailaren 18an egindako bilkuran hartutako onarpen akordioa bere berrespenerako, hain zuzen ere, Debagoieneko Mankomunitatea”ren eta haren kide diren hainbat udalen artean sinatzeko hitzarmen proposamena, non jasotzen den proiektu bateratu bat garatzeko proposamena, kanpoko argiteria publikoko instalazioak berritzeko mankomunitateko zenbait herritan, finantzatua “Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuak” (IDAE).



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

Akordioa hartzeko eskumena Udalbatzari dagokio eta Tokiko Gobernu Batzarrean urgentziaz hartutako akordioa arrazoituta dago Debagoieneko Mankomunitatetik erabakia hartzeko azaldutako urgentzian, besteak beste, dirulaguntza agortzeko arriskua ekiditeko.

Hauxe da berreztea proposatzen den Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa:

“PROPOSAMENA HITZARMENA SINATZEKO “DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA”REN ETA HAREN KIDE DIREN HAINBAT UDALEN ARTEAN, PROIEKTU BATERATU BAT GARATZEKO, KANPOKO ARGITERIA PUBLIKOKO INSTALAZIOAK BERRITZEKO, FINANTZATUA ENERGIA DIBERTSIFIKATU ETA AURREZTEKO INSTITUTUAK. (2016ZDIR0001)

Tokiko Gobernu Batzarrak, abo batez, Obrak, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoak Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Udalaren Zerbitzu Teknikoek aurkeztu dute Debagoieneko Mankomunitatea”ren eta haren kide diren hainbat udalen artean sinatzeko hitzarmen proposamena, non jasotzen den proiektu bateratu bat garatzeko proposamena, kanpoko argiteria publikoko instalazioak berritzeko mankomunitateko zenbait herritan, finantzatua “Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuak” (IDAE).

Aurrekoaz gain, hurrengo azaltzen da:

a) *Hitzarmenaren testua, besteak beste:*

“DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEAREN” ETA BERA OSATZEN DUTEN ZENBAIT UDALEN ARTEKO HITZARMENA, KANPOKO ARGITERIA PUBLIKOAREN INSTALAZIOAK BERRITZEKO BATERAKO PROIEKTUA GARATZEKO, ENERGIA DIBERTSIFIKATU ETA AURREZTEKO INSTITUTUAK FINANTZATUTA

Arrasate, 2016ko otsailarena

AGERTU DIRA

UNAI ELKORO OIANGUREN, Debagoieneko Mankomunitateko lehendakari gisa, 2016ko otsailaren 9an Gobernu Juntak hartutako erabakiaren arabera.

MARIA UBARRETXENA CID, Arrasateko alkate gisa,(e)an Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren arabera.

MIKEL BIAIN BERRAONDO, Oñatiko alkate gisa,(e)an Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren arabera.

ELENA LETE GARCÍA, Bergarako alkate gisa,(e)an Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren arabera.



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

JOSE RAMON ZUBIZARRETA ALEGRIA, Eskoriatzako alkate gisa,(e)an
Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren arabera.

UNAI ELKORO OIANGUREN, Aretxabaletako alkate gisa,(e)an *Osoko*
Bilkuran hartutako erabakiaren arabera

ESKU HARTZEN DUTE

Guztiek beren karguei dagozkien eginkizunak betetz, elkarri Hitzarmen hau egiteko gaitasun osoa aitortzen diote, eta

ADIERAZTEN DUTE

Ingurumena kontserbatzea egungo gizartearen erronka nagusietako bat da, etorkizuneko belaunaldien bideragarritasuna bermatzeko. Klima-aldaketa arintzeko neurriak hartu beharra premiazkoa eta urgentea da. Duela gutxi Parisen klimari buruz egin den gailurrean hartutako erabakiek guztion erantzukizuna planteatzen dute konpromiso honetan.

Besteak beste, energiaren kontsumoa murriztea eta energia-eraginkortasuna areagotzea lehenetsutako jardun-estrategiak dira.

Debagoieneko Mankomunitateak hainbat lan egiten dibardu energiaren arloan. Besteak beste, eskualdeko industriaren arloan energiaren eremuan balio-katearen azterketa egin da, baita Mankomunitatearen Arrasateko egoitzan energia-diagnosia ere, eta ondorioz elektrizitatearen hornikuntza eta kontsumoa zuzentzeko neurriak hartu dira.

Ildo horretatik, Mankomunitateak zera planteatu zuten bera osatzen duten udalei: eskualdeko udalerrietan kanpoko argiteriaren instalazio publikoak berritzeko baterako proiektu bat garatzeko aukera. Horren aldeko jarrera teknikoa hartu ondoren, udalerrri bakoitzean aurreikusitako jarduketan deskribapen-txostenak egin dira. Azkenik, aurreikusitako jarduketak eskualde mailako proiektu bakar batean batu dira, eta proiektua elkarrekin idatziz dute Udal parte-hartzaileek eta Debagoieneko Mankomunitateak.

Orain, proiektu hori udaletan kanpoko argiteriaren instalazioak berritzeko laguntza-programaren deialdira aurkezteko proposatu da; Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuak (IDAE) 2015eko apirilaren 28an egin zuten honetarako deialdia eta 2015eko maiatzaren 5ean argitaratu zen BOEn.

Ondorioz, idatzitako proiektuak eskualdeko udaletan zenbait jarduketa jasotzen ditu. IDAEk onartu eta finantzatuko balu proiektua, dagokion kontratazio-espeditentia izapidetuko litzateke Mankomunitateak gauzatu ahal izateko.

Kanpoko argiteria publikoaren instalazioak berrituko dituen egitasmoak honako helburu hauek lortuko lituzke:

- *Energia elektrikoaren kontsumoa %30 gutxienez murriztea.*
- *Kanpoko argiteria erregulatzea, eskakizun ezberdinetara egokituz.*



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

- *Jarduketak BTE-Bebe Tentsioko Erregelamendura (RBT) eta energia-eraginkortasunerako arauetara egokitzea.*
- *Instalazio berrien kalifikazioa A edo B motakoa izango da.*
- *Argi-puntu bakoitzeko gehieneko finantzaketa 600€-koa izango da.*

Azaldutakoaren arabera, alderdiek

ERABAKI DUTE

LEHENA.- *Debagoieneko Mankomunitatearen Estatutuen 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, non aipatzen baita bere xedea, Hitzarmen bonen sinatzaileek jarduketa hau aipatu artikulua hiru garren atalean kokatzea erabaki dute, hor berariaz sartzen baita "udal-ekintza zehatzen koordinazioa", jarduketa hau babesten duena, honetarako aldeaz aurretik dagozkion udal-erabakiak hartu direlarik.*

Ondorioz, aurretik IDAEk proiektua onartu eta finantzatzea ebatzen badu, Mankomunitatea arduratuko da elkarrekin idatzitako Hitzarmen hau izenpetzen duten udaletan kanpoko argiteria publikoaren instalazioak berritzeko proiektua gauzatzeari, bere aurrekontu osoa 1.719.552 €-koa izanik, honako xehetasunaren arabera udalerrira edo loteka:

- *Aretxabaleta: 244.541 €.*
- *Arrasate: 548.638 €.*
- *Bergara: 449.849 €.*
- *Eskoriatza: 405.133 €.*
- *Oñati: 71.391 €.*

Horretarako, sinatzen duten udalek baimena ematen diote Mankomunitateari proiektuan inplikaturiko udal-instalazioetan —berorien titulartasuna aldatu gabe— aipaturiko proiektua zuzen gauzatzeko beharrezko jarduketak egin ditzan, baita horien garapenerako beharrezko neurriak hartu ere.

BIGARRENA.- *Idatzitako proiektua kudeatzeari eta, hala badagokio, gauzatzeari dagokionez, Debagoieneko Mankomunitateak honako lan hauek egingo ditu:*

- *Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren aurrean aurkeztea Hitzarmen hau sinatzen duten Udalek eta Mankomunitateak batera garaturiko proiektua.*
- *IDAEk onartzen badu aurkezturiko proiektua, aipaturiko onarpenaren eabazpena jakinarazten denetik aurrera gehienez ere 3 hilabeteko epean, proiektua loteka gauzatzeko dagokion kontratazio-espeditarean izapideak hasiko ditu Mankomunitateak, lote bakoitza udalerrira bakoitzean aurreikusitako jarduketari dagokiolarik.*

Eraikuntza obretako osasun eta segurtasun araudi minimoa jasotzen duen 1997/1627 Errege Dekretuaren ildotik, Mankomunitatea promotore gisa arituko da.



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

- *Proiektua esleitu ondoren, dagokion mailegua izenpetuko du oinarri erregulatuarekin eta IDAEk egindako deialdian ezarritako baldintzen arabera.*
- *Mankomunitateak, inplikaturiko udalen laguntzaz, proiektuaren garapena ikuskatuko du eta dagozkion fakturak ordainduko ditu, gehienez ere urtebeteko epean amaitu behar direlarik lanak, kontratua sinatu ondoren.*
- *Mankomunitateak udalei eskatuko dizkie IDAEekin kontraturiko maileguaren amortizazioei aurre egiteko dagozkion ekarpenak, eta dagozkion ordainketak egingo ditu mailegu-kontratuan hitzarturiko epeetan.*
- *Mankomunitateak IDAEren deialdiekin bateragarri diren beste laguntza-deialdi batzuk aztertuko ditu, eta beharrezko gestioak egingo ditu horiek eskatzeko eta, onartzen badira, gero kudeatzeko. Dena den, laguntza horiek IDAEekin hitzarturiko mailegua amortizatzeko erabiliko dira.*

HIRUGARRENA- *Proiektuan parte hartzen duten Udalek, bestalde, honako lan hauek egingo dituzte:*

- *Mankomunitatearekin kolaboratuko dute beren udalerrian kanpoko argiteria publikoaren instalazioak berritzeko lanak egiteko beharrezko laguntza tekniko emanaz, gai honetan adituak diren teknikarien dedikazioaren bidez.*
- *Proiektuan parte hartzen duten Udaletako bakoitzak dagozkion ekarpenak ordainduko ditu bere udalerrian gauzaturiko inbertsioen arabera, IDAEekin kontraturiko maileguari dagozkion amortizazioak egin ahal izateko Mankomunitateak. Horretarako, IDAEren behin betiko ebazpenaren egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean, emandako maileguaren zenbatekoa eta baldintzak ezagutzen direnean, Mankomunitateak proiektuan parte hartzen duten Udal bakoitzarekin hitzarmen bat sinatuko du egin beharreko ekarpenen zenbatekoak eta epeak zehaztuz.*
- *Proiektuan parte hartzen duten Udalek, hornikuntza eta instalazioaren harrera egin ondoren, egindako instalazioaren jabe izango dira eta beharrezko mantentze-lanak beren gain hartuko dituzte.*

Kontratuan ezarritako berme epean, Mankomunitateak kudeatuko ditu enpresa esleipendunak konpondu beharreko aipatu epean sortutako arazoak.

LAUGARRENA.- *Proiektuaren edozein aldaketak dagokion Udalaren aurretiazko baimena beharko du. Aldaketa horrek gastua gehitzea baldin badakar, instalazioaren jabea den Udalak Mankomunitateari ordaindu beharko dio gehikuntza hori kontratatari ordaintzeko data baino lehen.*

BOSGARRENA.- *Hitzarmen hau indarrean izango da bertan aurreikusitako jarduketak amaitu arte.*

SEIGARRENA.- *Hitzarmen honek administrazio-izaera du, eta beronen interpretazio eta garapena herri-administrazioen arteko hitzarmenei aplikatzen zaien administrazio-ordenamendu juridikoaren arabera arautuko dira.*



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

Hitzarmena interpretatu eta betetzera koan sortzen diren auzigaiak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumende eta erabakipean jarriko dira.

Eta adostasunaren adierazgarri, goian aipaturiko lekuan eta datan izenpetzen dute”

- b) *Hitzarmen hau sinatzen duten Udalek eta Mankomunitateak batera garaturiko proiektua dela hau, bain zuzen ere, energiaren kontsumoa murriztea eta energiaren eraginkortasuna areagotzeko lehentasunezko estrategiaren helburuarekin.*
- c) *Arrasateko Udalari dagokionez, proposatzen den proiektua datza “VSAP”eko 916 luminaria berritzea, eta LED luminariengatik aldatzea, hurrengo tauletan adierazten diren energia aurrezpenak lortuko lirakeelarik:*

Situación actual	Nº PL	Potencia W	Potencia instalada kW	Consumo energía kWh/a	Coste energía €/a
VSAP	305	150	50,325	28.380	4.257
VSAP	611	250	164,970	801.500	120.225
TOTAL	916		215,295	829.880	124.482

Situación propuesta	Nº PL	Potencia W	Potencia instalada kW	Consumo energía kWh/a	Coste energía €/a
LED	507	70	35,49	136.800	20.520
LED	376	118	44,368	171.022	25.653
LED	33	170	5,61	21.624	3.244
TOTAL	916		85,468	329.446	49.417

Urteko aurrezpen energetikoa : 500.434 KWh (60%).

Urteko aurrezpen ekonomikoa : 75.065 € (60%).

- d) *IDAEEK onartzen badu aurkezturiko proiektua, aipaturiko onarpenaren ebazpena jakinarazten denetik aurrera gehienez ere 3 hilabeteko epean, proiektua loteka gauzatzeko dagokion kontratazio-espeditarean izapideak hasiko ditu Mankomunitateak, lote bakoitza udalerrri bakoitzean aurreikusitako jarduketari dagokiolarik.*
- e) *Eraikuntza obretako osasun eta segurtasun araudi minimoa jasotzen duen 1997/1627 Errege Dekretuaren ildotik, Mankomunitatea promotore gisa arituko dela, eta proiektua esleitu ondoren, Mankomunitateak dagokion mailegua izenpetuko duela oinarri erregulatzailleetan eta IDAEEK egingandako deialdian ezarritako baldintzen arabera. Beste batzuen artean:*

- 1. Interes-tasa: %0.*
- 2. Amortizazio modua: bileko kuota*



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

3. *Maileguaren iraupena: 10 urtekoa (12 hileko karentzia, gebi 108 hile printzipala amortizatzeke).*
 4. *Aurrez eginiko borondatezko amortizazioak ez du zigorrik izango. Hala ere, amortizazioa egin baino hilabete bat lehenago IDAERI jakinarazi behar zaio. Data honek interes epe baten amaierarekin bat etorri behar du.*
 5. *Mailegu honen bidez egindako jarduketentzat jasotako gainerako laguntzak aurrez amortizatu beharko dira.*
 6. *Proiektuaren amaieran egindako inbertsioa hasiera batean planteatutakoa baino txikiagoa balitz, diferentzia aurrez amortizatu beharko da.*
- f) *Mankomunitateak, inplikaturiko udalen laguntza, proiektuaren garapena ikuskatuko du eta dagozkion fakturak ordainduko ditu, gebienez ere urtebeteko epean amaitu behar direlarik lanak, kontratua sinatu ondoren, eta Udalei eskatuko dizkie IDAEREkin kontrataturiko maileguaren amortizazioei aurre egiteko dagozkion ekarpenak, eta dagozkion ordainketak egingo ditu mailegu-kontratuan hitzarturiko epeetan.*
- g) *Laguntzak kopuru bat ezartzen du argi-puntuko eta kopuru horren baitan egingo da hornidura, eta instalakuntza kopuru hori nahikoa bada, baina litekeena da instalakuntza lagapenetik kanpo geratzea.*
- h) *Adierazitakoaz gain, Mankomunitateak IDAERen deialdiekin bateragarri diren beste laguntza-deialdi batzuk aztertuko ditu ere, eta beharrezko gestioak egingo ditu horiek eskatzeko eta, onartzen badira, gero kudeatzeko. Dena den, laguntza horiek IDAEREkin hitzarturiko mailegua amortizatzeke erabiliko lirateke.*
- i) *Udalei Mankomunitateak eskatuko dizkie IDAEREkin kontrataturiko maileguaren amortizazioei aurre egiteko dagozkion ekarpenak, eta Mankomunitatea izango da, dagozkion ordainketak egingo dituen mailegu-kontratuan hitzarturiko epeetan.*
- j) *Proiektuan parte hartzen duten Udalek, hornikuntza eta instalazioaren harrera egin ondoren, egindako instalazioaren jabe izango dira eta beharrezko mantentze-lanak beren gain hartuko dituzte.*
- k) *Proiektuan parte hartzen duten Udaletako bakoitzak. Mankomunitatearekin kolaboratuko dute beren udalerrian kanpoko argiteria publikoaren instalazioak berritzeke lanak egiteko beharrezko laguntza tekniko eman ez eta dagozkion ekarpenak ordainduko ditu bere udalerrian gauzaturiko inbertsioen arabera, IDAEREkin kontrataturiko maileguari dagozkion amortizazioak egin abal izateko Mankomunitateak. Horretarako Mankomunitateak proiektuan parte hartzen duten Udal bakoitzarekin hurren atxikitzen den hitzarmena sinatuko du egin beharreko ekarpenen zenbatekoak eta epeak zehaztuz.*
- l) *Azkenik adierazi ere akordio honetan edozein aldaketa suertatuz gero dagozkion Udalaren aurretiazko baimena beharko dela.*
- m) *Udalaren Zerbitzu Teknikoek proposatzen dute, aurkeztutako Hitzarmena ontzat ematea eta sinatzea.*



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

- n) *Mankomunitateak aurrez aipaturiko egintza aurrera eramateko eskumena du bere estatutuak 7.3 puntuaren arabera. Horretarako udalen baimena behar dute, eta honetarako organo eskuduna Osoko Bilkura dela interpretatzen da 7/1985 Legearen 22.2.b) artikuluaen arabera. Gainera urte anitzetarako konpromezu kredituak onartu behar dira, eta honetarako organo eskuduna ere osoko bilkura da.*
- o) *IDAEko funtsetan dagoen dirua agortzeko beldurra dagoela eta, eskaera abal bezain laster egitea nahi du Mankomunitateak, bera, udalen baimena abal bezain laster lortu nahi du.*

Azaldutakoaren ondoren, hauxe proposatzen du, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako batzordeak:

1.- Baimena ematea Mankomunitateari, proiektu honen koordinazioa burutzeko, eta IDAEren aurrean dagokion eskaera burutzeko

2.- Ontzat ematea eta sinatzea aurkeztutako hitzarmena; “Debagoieneko Mankomunitatea”ren eta haren kide diren hainbat udalen artean, proiektu bateratu bat garatzeko, kanpoko argiteria publikoko instalazioak berritzeko, finantzatua, “Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuak”.

3.- Erabaki hau Osoko Bilkurari aurkeztea berak berretsi dezan.”

9.- UDALBATZARRARI JAKINARAZTEA UDALAREN 2015EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN ONARPENA. (2016RBAR0009)

Indarrean dagoen aurrekontuen legean ezarritakoa betetzeko UDalbatzarrari jakinarazten zaio, Udalaren 2015eko aurrekontuaren likidazioa dela eta 2016ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak honako akordio hau hartu zuela:

UDALAREN 2015EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ONARTZEKO PROPOSAMENA. (2016RBAR0009)

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Ogasun Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Kontu-hartzaileak 2015eko aurrekontuaren likidazioaren berri eman du, eta zenbaki laburpena da hauxe:

2015EKO AURREKONTU EMAITZAREN KALKULUA

A	Eskubide garbiak, 2015eko ekitaldiko likidazioa	33.937.082,14 €
B	Onartutako obligazio garbiak, 2015	31.657.672,24 €

C	2015eko ekitaldiko aurrekontu operazioen emaitza (A – B)	2.279.409,90 €



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

D	Deuseztatutako gastuen soberakinen obligazioak	741,28 €
E	Deuseztatutako hondarren diru-sarrereren eskubideak	-545.487,11 €
F	Itxitako ekitaldien aurrekontu operazioen emaitza (D + E)	-544.745,83 €
G	2015eko ekitaldiko aurrekontu emaitza (C + F)	1.734.664,07 €
H	Doitzea:	
	H.1 - 2014ko likidazioko diruzaintzako soberakinez finantzatutako obligazio onartuak (eranskinak – 1.a)	2.133.986,10 €
	2015eko ekitaldiko finantza onartua doitzea (eranskina 2)	670.555,21 €
	DOITZEA GUZTIRA (H.1 + H.2)	1.463.430,89 €
I	AURREKONTU EMAITZA DOITUA (G + H)	3.198.094,96 €

2015EKO LIKIDAZIOKO DIRUZAINTZAREN SOBERAKINA

1	KUTXAN DAUDENAK, 2015-12-31n	5.435.976,29 €
2.1	Ekitaldi arruntean kobratzeke daudenak	4.733.630,24 €
2.2	Itxitako ekitaldietan kobratzeke daudenak	2.493.787,11 €
2.3	Aurrekontukoak ez diren zorrak	510.892,98 €
	KOB RATZEKE DAUDEN SALDOAK GUZTIRA	
2	(2.1+2.2+2.3)	7.738.310,33 €
3.1.	Ekitaldi arrunteetako hartzekodunak	1.757.316,07 €
3.2	Itxitako ekitaldietako hartzekodunak	31.347,72 €
3.3	Diru-sarrereren aurrekontuaren hartzekodunak	--- €
3.4	Aurrekontukoak ez diren hartzekodunak	2.210.764,77 €
	ORDAINTZEKE DAUDEN SALDOAK GUZTIRA (3.1 +	
3	3.2 + 3.3 + 3.4) (*)	3.999.428,56 €



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

4 DIRUZAINZAKO SOBERAKIN GORDINA (1+2-3)	9.174.858,06 €
5 DOITZEA:	
- AFEKTATUTAKO FINANTZAKETA (Ikusi eranskina-3.a)	-1.046.326,16 €
- ZALANTZAZKO KOBRAKETA (Ikusi eranskina – 4)	-2.643.289,36 €
- KUPOAREN ARRISKUA	-707.857,79

DOITZEA GUZTIRA (5)	4.397.473,31 €
DIRUZAINZAKO SOBERAKINA, GASTU	
6 OROKORRETARAKO DOITUA (4-5)	4.777.384,75 €

Bestalde, udal sailek hainbat eskaera egin dituzte, 2015eko aurrekontuko gastu kate jakin batzuk (berariazko finantzaketa duten bigarren kapituluko gastuak, inbertsioen kapituluko kontu-sailez gain), onartutako obligazio aldira iritsi ez direnak (onartutako faktura edo ziurtagiria), diruzaintzako soberakinaren kontura finantzatu daitezten. Gastu kate horien xehetasuna agertzen da diktamen honen eranskin moduan, eta 2.571.724,97 €-ko zenbatekoa da (eranskineko 5. agiria, geroko ekitaldien konturako konpromiso kredituak deskontatu eta gero).

Eskaera horiei dagokienez, udal kontu-hartzaileak adierazi du ez dagoela legezko trabarik edo eragozpenik eskatutakoa sartzeko, kapital eragiketei dagozkien gastuak baitira edo finantzatzen dituzten diru-sarrera espezifikoak dituztelako, eta, halaber, eskatutako baldintzak betetzen baitituzte aplikatzekoa den araudiak (21/2003 FA, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuena, 2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontua Egonkortu eta Finantzari Eustekoa, 1/2013 FA, Gipuzkoako Toki Erakundeen aurrekontua egonkortu eta finantzari eustekoari buruzko finantza babesaren eskumena garatzen duena) nahiz 2015eko aurrekontua betetzeko arauak.

2015eko aurrekontuaren likidazioaren proposamenari buruz eta 2016ko aurrekontura kredituen zerrenda sartzeari buruz, Ogasun Batzordeak, EAJ-PNVko ordezkariaren eta PSE-EEko ordezkariaren aldeko botoekin, eta EH BILDU, BALEIKE eta IRABAZIko ordezkarien abstentzioarekin, aldeko txostena ematen die eta akordio proposamena egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

1) 2015eko udal aurrekontuaren likidazioa onartzea, udal kontu-hartzaileak egindako zenbaki laburpenaren arabera.

2) Onartzea 2016ko aurrekontuan sartzea 2015eko aurrekontuaren gastuen kreditua, 2.571.724,97 euro, honekin batera doan zerrendaren arabera, sartutako diru-kopuru horren zati bat finantzatuta finantza afektatuko diru-sarreraren bidez, zehazki 1.046.326,16 euro, eta gainerakoa,



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

1.525.398,81 euro, 2015eko aurrekontuaren likidaziotik datorren diruzaintzako soberakin likidoaren bidez.

3) Indarrean dagoen aurrekontu araudian jasotakoa betetzeko, akordio honen berri ematea Udalbatzarrari, egingo den hurrengo bilkuran.

Azkenik, adierazi behar da, kasu horretan, onartutakoan bai 2015eko aurrekontuaren likidazioa bai gastu kredituak sartzea 2016ko aurrekontuan, akordio honetako 2. zenbakian aurreikusia, oraindik egongo litzateke erabili barik diruzaintzako soberakin bat, 3.251.985,94 euro.

Horri buruz, soberakin hori erabili behar da, lehenik eta behin, gastu konpromisoak finantzatzeko, sartu ez direlako (fakturatu gabeko gastu arruntak edo inbertsio onartuak urte bat baino antzintasun handiagoarekin), aurrekontu estaldurarik gabe geratu dira edo desbideraketa garrantzitsuak sortu behar dituzte 2016ko aurrekontuko aurreikuspenei buruz, 79.647,10 €. Halaber, osoko bilkuraren akordioa izan aurretik, erabili nahi da soberakinaren beste zati bat gastu berriak finantzatzeko, 2.265.600 €-ko zenbatekoa, zeinetan sartzen diren hainbat kontu-sailen aurrekontu dotazioen igoerak Takolo-Garaia-“G” fasea urbanizazio proiektua finantzatu ahal izateko, mankomunitatean azkenik onartutako aurrekontutik datozen inbertsioetako aportazioak, etxebizitza bat erostea Zeharkale Estalian, eta handitze bat, kreditu erreserba moduan, “Aprendices” eta “Erloju Zerrajera” eraikinak birmoldatzeko proiektuen geroko exekuzioaren finantzaketa errazteko, eta horrela, jardun horien garrantzi ekonomikoa ikusita, balio dezan 2017an zorpetze larregikoa ez gertatzeko, haren exekuzioa hasi eta gero. Hori guztia, albora utzi gabe 2016an beste erabaki batzuk hartu daitezkeela, lehen tasunen arabera, egindako akordio proposamenari eusten dioten bestelakoak edo aldatu daitezkeela nabarmen aurreikuspenen batzuk edo lan hipotesi batzuk, une honetan erabili direnak.”

10.- UDALBATZARRARI JAKINARAZTEA ITURBIDE EGOITZAREN 2015EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN ONARPENA. (2016RBAR0010)

Indarrean dagoen aurrekontuen legean ezarritakoa betetzeko Udalbatzarrari jakinarazten zaio, Iturbide Egoitzaren 2015eko aurrekontuaren likidazioa dela-eta 2016ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak honako akordio hau hartu zuela:

ITURBIDE EGOITZAKO 2015EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ONTZAT EMATEKO PROPOSAMENA. (2016RBAR0010)

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Ogasun Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

“Bere onespenerako 2015eko aurrekontuaren likidazioari buruzko Iturbide Egoitzako Lehendakariaren proposamena (Zuzendaritza Batzordetik berrestekoa) ezagutu du Ogasun Batzordeak. Bertan likidazioa honako laburpen numerikoarekin planteatzen da:

1.- 2015eko AURREKONTUAREN EMAITZAREN KALKULUA

A	2015 ekitaldian likidatutako eskubide garbiak	3.314.858,92
B	2015 ekitaldian onartutako obligazio garbiak	3.314.858,92
C	2015eko EMAITZA PRESUPUESTARIOA	0,00

2.-2015eko LIKIDAZIOAREN TESORERIAKO SOBERAKINA

1.- 2015-12-31N KAXA ETA BANKUEN SALDOA	375.993,42
2.1. Ekitaldiko Kobratu gabeko sarrerak		171.925,31
2.2. Aurreko ekitaldietako kobratu gabeko sarrerak		0,00
2.3. Aurrekontuz kanpoko zordunak		0,00
2. KOBRAZTEKO DAGOEN SALDOA GUZTIRA	171.925,31
(2.1.+2.2.+2.3.)		
3.1. Ekitaldiko ordaindu gabeko gastuak		382.208,60
3.2. Aurreko ekitaldietako ordaindu gabeko gastuak		0,00
3.3. Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak		165.710,13
3. ORDAINTZEKO DAGOEN SALDOA GUZTIRA		547.918,73
(3.1.+3.2.+3.3.)		
4. TESORERIAKO SOBERAKIN GORDINA (1+2-3)		0,00
5.1. Finantzaketa afektaturik duten gastuak		0,00
5. AJUSTEAK (5,1,+5,2,)		0,00
6. TESORERIAKO SOBERAKIN AJUSTATUA (4-5)		0,00

2015eko kontuen itxiera orekatzeko, Arrasateko Udalak ez du diru ekarpenik egin behar izan, hasieran aurreikusitakoa 96.719,73 €-koa bazen ere. Alderantziz, Iturbide Egoitzak Udalaren alde 124.971,16 €ko diru ekarpena egin beharko du, urteko sarrera eta irteeren arteko kontu itxiera orekatua lortzeko.



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

Diru emaitza hori, sarrerren ataletik, Foru Aldunditik lortutako sarreretan onartutako tarifen eguneraketatik eta defizita estaltzeko egin duen ezohiko ekarpenetik dator, eta gastuei dagokienez, zerbitzu batzuen kontratazioetan (batez ere, catering-aren zerbitzutik) lortutako ekonomingatik dator, eta guzti horrek balio izan du Udalak Iturbideko jardueragatik aurrekontuz kanpoko beste kontzeptu batzuk finantzatzeko laguntzeko (azpiegiturazko gastuak, zeharkako gastuak eta Udalak Iturbiden egindako inbertsioen amortizazioak).

11.- 2015 EKITALDIKO LIKIDAZIOATIK LORTUTAKO DIRUZAINITZA GERAKINAREN KONTURA 2016KO AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA. (2016DKRE0001)

2016ko martxoaren 15ean egindako bilkuran Tokiko Gobernu Batzarrerako diktaminatuta, Ogasun Batzordeak aldeko txostena eman zion Udalaren 2015eko aurrekontuaren likidazioari. Horrekin batera, diruzaintzako gerakinaren kontura, 2.571.724,97 €ko kreditu txertaketa onartzeko proposamena egin zen, eta oraindik ere gastu orokorretarako doitutako diruzaintzako gerakina erabiltzeko 3.251.985,94 €an zenbatu zen.

Aipatutako diktamena 2016ko martxoaren 17ko Tokiko Gobernu Batzarrean onartzea espero da eta bertan adierazten da, beste zorpetzeari buruzko hausnarketarekin batera, erabilgarri gelditu den soberakinaren zati bat zenbait proiektuetarako bideratzeko asmoa dagoela. Hori bi multzotan sailkatu da, lehena, 2015eko itxieraren testuinguruan txertagarri ez ziren gastuak (finantza iturri lotua ez zutelako zenbait gastu arrunt edo urte bat baino gehiagoko antzinatasuna duten inbertsioak), 79.647,10 eurokoa, eta, bigarrena, 2.265.600 euroko kopurua suposatzen duena, 2016ko aurrekontuetan aurreikusigabe edo nahiko dotazio ez daukaten kapital eragiketarako gehikuntzak finantzatzekoa (Zeharkale estaliko etxebizitza erosteko, Garaia-takolo Urbanizazioako “G” faserako obrak, Mankomunitateko inbertsioetarako ekarpenak, “Aprendices” eta “Erloju eraikinerako” proiektuak).

Eskari horiek guztiek, osotasunean onartuz gero, erabili gabe geldituko litzatekeen gerakina 906.738,84€koa izango litzateke. Horrek esan nahiko luke 2016eko aurrekontuak gauzatuko balira aldaketarik gabe hasieran onartutako kopuruei buruz, ez dela beharrezkoa izango ekitaldian mailegu berri bat eskatzea (aurrekontuetan 876.810,50 euroko mailegu bat dago aurreikusita).

Hori horrela izanik, Ogasun Batzordeak onargarria ikusten du 2015eko likidaziotik sortutako gerakina erabiltzea planteatu den kopuruan, ulerturik 2016ko aurrekontuaren exekuzioan desbideraketa handirik egon ezean, mailegu berriak eskatu gabe, itxiera orekatua lortu ahal dela.

Bestalde, bai kreditu txertaketarako eta baita ere oraingo 2015etik sortutako gerakinaren erabilerarako, 2016 ekitaldiko Aurrekontuaren egonkortasunaren eta gastu erregelaren helburua betetzeari buruz, Kontu-hartzaileak ondokoa informatzen du:

Udalbatzak, 2015eko abenduaren 29an egindako bilkuran, 2016ko Aurrekontu Orokorrak onartu zituenean, 1/2013 Foru Arauak, Toki entitateen Aurrekontu Egonkortasunaren eta Finantza



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

Iraunkortasunaren alorretan finantza Tutoretzaren eskumena garatzen duena, eta 2015eko azaroaren 17an Diputatuen Kontseiluak onartutako jarraibideek 2016 ekitaldirako finkatutako helburuak, aurrekontu egonkortasuna, zorra eta gastu erregela helburuei dagokienez, Udalak bete bazituen ere, 2015eko kontuen itxieraren testuinguruan hartutako akordioekin (kreditu txertaketa eta orain proposatzen den gerakinaren erabileraz), zorraren helburua izan ezik, gainontzeko helburuak, egonkortasuna eta erregela gastua ez lirateke beteko.

Beraz, Gipuzkoako Toki Entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzeko 2016rako jarraibideen 1. eta 3. erregelek ezarritakoaren arabera, Arrasateko Udalak eta bere Erakunde Autonomoak (Iturbide Egoitza), egonkortasunaren helburua eta gastuaren erregela ez dutenez betetzen, finantza eta ekonomia plana egin eta onartu beharko lukete, egoera urtebeteko epean zuzenduko dela bermatuko lukeen plana, hain zuzen ere.

Hala ere, zenbait kasutan (diruzaintzaren gerakinaren erabilera horien artean), planaren ordeztu, Kontu-hartzailetzak izenpetutako komunikazio bat Udalbatzarrari helarazi dakioke, Arrasateko Udal Administrazioaren finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatzen duen txosten batekin batera.

Hori dela eta, kontuan hartuta aipatu helburu legalak ez betetzearen arrazoiak diruzaintzaren gerakina erabiltzetik datozela, eta, ezuste handiak izan ezik, hurrengo urteetarako ez dela ikusten Udalaren finantza iraunkortasuna desagertzeko arrisku handirik, 2015 eta 2016an zorraren maila oso baxuak baitira (%6,61 eta %4,76 bateratutako baliabide arruntei buruz), ezarritako mugatik (%80) oso urruti, eta egonkortasunari dagokionez, 2015 ekitaldiko likidazioan 3.678.444,08 euroko marjinarekin bete dela ezarritako muga, eta 2016 ekitaldirako ere, 2015eko gerakinaren erabileragatik izango ez balitz, beteko litzatekeela helburu legala (aurrekontuko 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarrerak \geq aurrekontuko 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuak izatea).

Beraz, ez da plan ekonomiko-finantzarioa onartzeko beharrik ikusten eta, bere ordeztu, Udalbatzarrari komunikatu behar zaio 2015eko ekitalditik sortutako diruzaintzako gerakinaren erabileragatik gertatu dela egonkortasunaren eta gastu erregela gastuaren helburuak ez betetzea, aldi berean, Arrasateko Udal Administrazioaren finantzari buruzko jasangarritasuna, ezuste edo aldaketa handiak izan ezik, bermatuta dagoela adierazita utziz.

Hori guztia kontuan hartuta eta kreditu aldaketari buruz jasotako eskariak Ogasun Batzordean aztertu eta gero, onargarriak direla iritzirik, EAJ/PNV eta PSE-EE udal taldeko ordezkarien aldeko botoekin, BALEIKE eta IRABAZI udal taldeko ordezkarien kontrako botoekin, eta EH BILDU udal taldeko ordezkariaren abstentzioarekin, eta Batzordearen Lehendakariaren kalitatezko botoarekin, ondorengo akordio hartzea proposatzen dio Udal Plenoari:

1.- 2016 ekitaldiko aurrekontuaren kreditu aldaketa espedienteari hasierako onespena ematea, kreditu gehigarrien erregimenean, ondorengo laburpen numerikoarekin:

A- GASTU GEHIKUNTZA



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

Kap.II - Ondasun eta Zerbitzuen erosketak	39.460,40euro
Kap. VI – Inbertsioak	2.253.186,70 euro
Kap. VII – Kapital Transferentziak	52.600,00 euro
GASTU GEHIKUNTZAK GUZTIRA	2.345.247,10 euro

B- FINANTZAKETA –

B.1 – 2015EKO DIRUZAINTZAKO GERAKINA **2.345.247,10 euro**

2.- Aipatu espedientea 15 laneguneko epean jendaurrean jartzea, interesdunek aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

3.- Jendaurreko epean ez bada inolako erreklamaziorik aurkezten, hasierako akordioa behin betikoz onartuta kontsideratzea.”

4.- 1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua eta Gipuzkoako Diputatuen Kontseiluak 2015eko azaroaren 17 onartutako jarraibidearen 1. eta 3. arauak ezarritakoaren arabera, Udalbatzarrari komunikatzen zaio 2016ko aurrekontuek, kreditu txertaketa eta kreditu gehigarri hauek onartu eta gero, ez dituztela betetzen egonkortasun eta gastu erregelari buruzko helburuak, baina diruzaintzako gerakina erabili delako da bere arrazoi. Udalbatzarrari egindako komunikazio honek ekonomia eta finantza-plana ordeztu du.

I. URIZAR (BALEIKE):

Hasteko esatea gai honen inguruan, soberakinen inguruan iruditzen zaigu denbora gutxi eman zaigula behar bezala eztabaidatu eta jorratzeko. Esan zitzaigun ogasun batzordean edukiko gaela aukera horren inguruan proposamenak eta eztabaidatzeko. Nire ustean ez da horrela izan. Arrasaten badazela beharrak ikusirik adibidez, %14ko langabezia tasa daukagula eta pentsatzen dugu gizarte politikan sakontzea beharrezkoago dela izango litzaketekeela soberakin honekin.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Eskerrik asko. Norbaitek gehiago.

E. BARBERENA (EH-BILDU):



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

Nik Igorrek esan dauen bidetik gu batzordean abstenitu egin ginen bai aurreko jakinarazpen puntutan bai puntu hontan ez ginulako eduki denbora nahikoa gaia gure barruan ondo lantzeko. Ez dugu jartzen zalantzan noski. Kontuhartzaitza kontuak ondo egin ez dituztenik baizik eta nahi genuien hori islatu ez?

Kasu hontan ez dugu konpartitzen gobernuak soberakinekin hartutako erabakia botatzen dugun falta oposizioarekin hitz egitea gai honen inguruan, azokan egingo den zalantza areagotuko jaku, zemento gehigitxia dago gure gustorako eta larriena dena, hau da, ez dakigu adibidez dirua destinatuko dan egitasmoan proiektuen aurrekontu totala ez? Eta osotasuna ikusi barik zaila egiten jaku babestea.

Gainera, aprendicesen kasuan, ez dakigu zein dan eraikinaren egoera administratiboa bera be ez? Badakiguk SPRIk zer eskatu izan dauen, zer planteatu izan dauen baina deigarria egin jaku, eraikina lanean hastea guk dakigula ez danian udalana eta ez dauenean edo salerosketa proposamenik edota ezta epe luzeko lagapenik ez? Ikusten dugu Arrasaten musikal eta udal euskaltegiaren egoera irteera bat planteatzea zilegi izan ahal dena. Guk bazeukagun beste iritzi bat honi buruz baina ezin dugu babestu hola planteatzea eta aurka bozkatuko dugu.

J.L MERINO (IRABAZI):

Un poco en esa línea también esto es otro claro ejemplo de rodillo. Esto aquí no se ha tenido en cuenta aparte de tarde que no se nos ha informado de esto. No se ha tenido en cuenta ni siquiera ninguna de las alegaciones que presentamos los demás grupos a presupuestos para poder incluirlos ahora con este remanente. Crear otras necesidades más sociales y menos ladrillo que no decimos que no sean importantes, cuanto el edificio del reloj como el de Aprendices, pero pensamos que se tenía que haber hablado con lo demás grupos para intentar acordar alguna de las enmiendas que presentamos a presupuestos que no fueron aceptadas.

Echamos en falta el paro, solución para el paro del pueblo como ha dicho %14, la vivienda, el medioambiente, ¿no?

Solo se mira a la foto a la inauguración y a poco más, este es otro claro ejemplo de rodillo. Vamos a votar que no.

A. EZKURRA (EAJ-PNV):

Bai. Uste dugu hasiera batetik EAJaren aldetik beti argiak eta garbiak izan garela, udaletxe honetan sartu ginenetik gure 10. puntua bai hauteskundeetan eta betik gure aldarrikapena izan dela eta proiektu estrategiko bat eta esan dugu bai hemen udalbatza honetan plenoetan eta baita publikoki Arrasate kultur gune garrantzitsu bat puntero bat izatea bai Arrasaterako, gipuzkoarako, euskal herrirako behar beharrezkoa zela. Arrasate musikal dagoen egoera deseroso bueno hitz polit bat erabiltzeagatik Goikobaluk 17 kultur eragile ezberdin daramagu azkeneko bi hiru hilabectan beraiekin lanketa Bagara taldeekin lagunduaz eta ikusten dugulako hori dela behintzat ba benetan momentu honetan Arrasateri egin diezaiokegun ekarpen handi handi bat.



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

Ados nago zurekin agian, gizarte zerbitzuan proposatu dezakezuten beste aldarrikapen edo batzorde ezberdinak daude joan gaitezen batzorde bakoitzean dagokion lanak eta gaiak lantzen. Baina beti ere gure eta hemen esaten dana da diru zati bat uzten dugula. Datozen urteetan ez daigun zorpetze handietara eramán Arrasateko udala eta saiázen ari garena da era zuhur batetan jokázen eta beti ere hasiera batetik esan dugun proiektu kultural garrantzitsu bat aurrera eramateko. Mila esker.

E. BARBERENA (EH-BILDU):

Nik Anuska galdera zehatza zen. Zein da aprendicesen egoera? Gaia zelan dago? Udalak hain garbi edukitzeko bertan inbertsio hori egitea eta gainera ia horren zentzu hortan urratsak ematen hasi dira. Hoixe da guk hori ez dakigula

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Bai inorrek ez daki ze oraindikan bueno negoziátzen ari gara flekoak ixten ari gara, baina akordio batera iritsiko gara eta horregatik atera dugu lizitazioa. Gu ziur ez bagina egongo Aprendicesen proiektua aurrera eramateko gai izango ez ginenik ez genuke bueno ba aste honetan agertu den bezala ostegunean aprobátu zan tokiko gobernu batzarrean Aprendices eraikineko proiektua idazteko lizitazioa atera dela, ez dakit zuzendaritza eta proiektu idaztearekin biak batera gehituta ia 350.000 € ez?

Hombre nik pentsázen dut hor gure apustua ikusten dela ia lizitazio bat aurrera atera den heinean eta oraindik publikoki ez dugu esan ba ezin dugulako esan ba negoziaketa horretako flekoak itxi gabe daudelako baina bueno abokatuak dauzelako fleko hoiek ixten baina ez daukagu inongo zalantzarik akordio izango dugula eta horregatik da gure apustu irmoa eta Anuskak esan duen moduan, gure legealdiko proiektu izar proiektua da Arrasaten kultur gune bat sortzea.

Beste lehentasun batzuk egon daitezkeela ba agian bai, beste pertsonentzako gauza batzuk direla lehentasunezkoa ba bai, baina guretzako kultur gune indartsu bat Arrasaten sortzea eta behin betiko Arrasate musikali ere egoitza egoki bat ematea. Hori da guretzako garrantzitsuenetakoa eta hor jartzen ditugu gure indarrak eta orain egiten dugun apustua ere 2 milio eurotako apustua hori bi eraikinetara bideratzea bueno hor ikusten da benetan gure apustua gure apustua benetazkoa dela eta proiektu hauekin gu aurrera goazela.

Ez dakit erantzun dotzuten baina bueno informazio gehiago daukagunean edo ia benetan ofizialki zerbait esan dezakegunean talde politikoeekin konpartituko dugu, inorrek baina lehenago hor nire hitza ematen dizuet.

E. BARBERENA (EH-BILDU):

Eskertzen dizut informazioa baina hala eta be ondion be kronologia xelebrea egiten jat, lehenengo flekoak itxi barik suposatzea akordio bat egingo dela, guk ez dakigu terminoetan baina bueno zuek badakizue noski eta ia ez dakit batzuetan gauzak azkeneko orduan be nahastu ahal dira, ez dakit zein da izenpetu arteko prozesua, baina bueno diok SPRIk udal honekin eduki dauen harreman



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

gatazkatsuagatik, azkeneko urteetan ni hortara remititzen bain bueno egia esan, xelebrea egiten jat baina informatuko gaituuzte eta ikusiko dugu.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Azkenean paraleloki goaz ze ez dakit bueno hirigintzako ez OZMeko batzordean uste dut pasatu zela, klaro proiektua idazteko 6 hilabeteko epea ematen zaio, enpresa lizitatzaileri klaro hasten baldin gara pentsatzen sei hilabeteko epea proiektua prestatzeko, gero adjudikatu egin beharko da, gero beste lizitazio bat atera beharko da obren exekutatzeko gero obrak egin beharko dira eta honek eraman beharko du denbora pila bat. Orduan ez baldin bagara azkartasunez mugitzen epeak joango zaizkigu aurrera eta ez digu emango denbora bukatzeko eta gure nahia da bukatzea ze guk kultur taldeekin konpromiso bat hartu dugu eta guk konpromiso hori bete nahi dugu.

Baina esan bezala publikoki egin dezakegunean akordioa inorri baina lehenago alderdi politikoei emango dizkizuegu esplikazioak.

J.L MERINO (IRABAZI):

La preocupación que tiene Anuska claro Es muy desagradable la situación de Arrasate Musikal, efectivamente pero la de los parados y los desahuciados también y en este ayuntamiento y un ayuntamiento debe de verla lo primero de todo, por los servicios básicos de todas las personas, es que no habéis contemplado ninguna partida. Ninguna en aspecto social todo es el edificio del reloj y Aprendices.

A. EZKURRA (EAJ-PNV)

Barkatu Alkate. Zuzena izan ez gaituna arduratzen Esaten dudana da gai horrek batzorde batera eraman ditzazutela eta bertan jorratu daitezela hori dinot. Ez dut esaten Arrasate Musikal bata beste baina garrantzia handiagoa denik eta pertsonak dira udaletxe honen helburu. Arrasatear guztiak horregatik diot, benetan arazo zailak izaten badira udaletxe honetan, herri honetan barkatu batzorde bat daukazu non gai horiek jorratzen diren hor dagokizu gai honi aurre egitea eta batzordeetan erabakitzea eta plenora zerbait etorri behar badu diru kontu bat beharren bat bete behar dela orduan aztertuko dugu. Hori dinot bakarrik.

J.L MERINO (IRABAZI):

En el informe hay un párrafo en el cual dice considerando todo lo anterior tras analizarse en la comisión de hacienda las solicitudes recibidas sobre la modificación de créditos, estimando que las mismas son aceptables. Analizándose en la comisión informativa las solicitudes recibidas.

Quien nos ha dicho que tengamos que hacer alguna solicitud. Se ha presentado las vuestras y punto no se nos ha llamado y oye Irabazi o Bildu. Hay el remanente este y hay posibilidad de meter o hacer



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

otra nueva partida para temas que os preocupan pero no ha habido, se ha llevado a la comisión directamente con las cifras estas y con los proyectos estos. No hay vuelta.

Como vamos, que vamos ahora a la comisión ahora bajar de Aprendices que vamos a meter para un programa de empleo 200.000 €

I. URIZAR (BALEIKE):

Apuntetxo bat bakarrik.

Gaur plenoan aurkeztu ditugu bi mozio ez direnak atera baina gardentasunaren gainean eta zuk esaten duzunean ezin dela publiko egin gustatuko jaten jakitea zergatik. Ez dagoelako borondaterik edo legalki ezin da egin?

Gustatuko jaten argitzea zergatik ezin dugun jakin udaletxean artean, entitateen artean negoziazioa dagoenean jakietarren.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Akordio finkoa itxi gabe dagoenean ezin duzu horri buruzko informazioa eman baina beste gauza askoetan bezala.

Abokatuen arteko gauzetan juicio baten moduan Igor ezin dituzu gauzak zergatik horrek eragin dezake agian akordio hori desbideratzea edo akordio hori ez ixtea baina hori gauza askotan gertatzen da.

Alderdi politikoen gaineko akordioak zergatik bukaera arte be bai ez dira publiko egiten. Negoziaketa prozesu baten barruan egoten direlako eta negoziaketa prozesu horretan i ahitez hitz joaten baldin bazara ba agian akordioa bertan behera gelditzen delako.

Bueno momentu honetan nik esan dizuete san diezakedana, ez zait irtetzen hitza orain ahal dotena esan gure nahi irmoa da Aprendices Musika eskola bihurtzea benetan harritzen nauena da bueno ba zuek agian ez duzuela nahi aprendices musika eskola egitea ez dutena ulertzen da holako herriarentzat hain garrantzitsua dan proiektu baten atzean hainbeste pega ipintzea.

Hori da benetan harritzen nauena eta nik pertsonalki agian esaten dut bueno es ke igual beraientzako ez da hain estrategikoa eta ez da zinegotzi hauen nahia musika eskola behin betiko eraikin egoki bat edukitzea. Bueno hori baldin bada zuen beste lehentasun bat baldin badaukazue eta hori ez baldin badazue ikusten guztiz zilegia iruditzen zait baina gure asmoa hori da eta gure proiektua hori da. Eta gure apustua hori da eta nik uste dut garbi jokutzen ari garela horretan besterik gabe.

E.BARBERENA (EH-BILDU):



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

Ez nik eskertuko notzun ez jartzea nire ahotan esan ez dotenik. Guk ez gara pronuntzia aprendices egitearen alde edo aurka. Guk esan duguna da horrenbeste diru jarri behar dugu bertan ze segurtasun daukagu diru horren egoeran eta gauzatzean segurtasunaren inguruan.

Guri oso arraroa egiten jaku presupuesto total bat ikusi barik eskatzea remanenteak asmo osoa ikusi barik eta akordioa jakin barik. Guk ulertzen dugu negoziaketana hainbaten bai eta hainbaten ez. Baina lehen aipatu denean gauzak batzordeetara eraman behar direla. Hombre agian modu indiskretoan baina bai zegoen beste era batera lantzeko aukera.

A. GARAY (EAJ-PNV):

Arratsaldeon denoi.

Juan Luisei erantzuten dotzat. Arrazola daukazu esplikau gauen batzordean lehenengo likidazioa onartzeko ez zauela denborarik ba aste santua jauzi delako eta 31rako aprobau in biazala eta baina bueno hori ilusita be bai beti irtetzen da landu batzordea, batzordeak astelehena, asteartea batzordea.

Astelehena Juan Luis Merino ez zan etorri. Orduan landu bai landu, landu baina gero ez zara agertzen.

Alde hortatik ez daz lantzeko gauza asko. Esplikau notzun baita hau ez zela presupuestoa, hau dela likidazioa eta 1.900.000 €ko soberakin hau erreserba batera doia, erreserba batera aurten ez da gastatuko 1.900.000 € doia erreserba batera igual egia da, igual egin behar genuen jartzea erreserba 1.900.000 ez doia ez Aprendices ez Zerrajera ez baina guk argi eta garbi hitz egin dugu legealdi hasieratik horrek zirela gure bi proiektuak. Horregatik jarri dugu 950.000 baterako eta 950.000 besterako. Beste barik.

J.L MERINO (IRABAZI):

Si en alguna no puede ir no puedo ir tu estas liberado. Y bien cobrado y la alcaldesa también y otros también yo creo que debe de ser la ultima vez que me reprochas que no vaya a una comisión. La ultima vez porque estoy haciendo yo creo que estamos haciendo nuestro grupo un esfuerzo en ir a casi todas las comisiones. No te voy a admitir eso.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Bozkatzera pasatuko gara.

Bertaratuak	21	
Aldeko botoak:	11	EAJ-PNV (8), PSE-EE(3)
Kontrako botoak:	10	BILDU (7), BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

Abstentzioak:		
---------------	--	--

Onartua

12.- ARRASATEKO UDALAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEKO PROPOSAMENA. (2016RBAR0003)

Udal Plenoak, aho batez, Ogasun Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koa, bere 8.1 artikuluan ezartzen du diru-laguntzak ematea proposatzen duten Herri Administrazioetako organoek edo beste edozein erakundek, aldez aurretik, hura aplikatzean lortu nahi dituzten helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko behar izango duten epea, aurreikusitako kostuak eta horien finantzabideak zehaztu beharko dituztela Diru-laguntzen Plan Estrategiko batean.

Era berean, lege horren azken xedapenetako lehenengoak ezartzen du aipatu artikulua oinarrizkoa dela eta Herri Administrazio guztiek aplikatu behar dutela.

Bestalde, legezko mandatua betetzeaz gain, beste zio eta arrazoi batzuk daude agiri hau idaztea aholkatzen dutenak; adibidez, eraginkortasun eta efizientzia mailak hobetzea dirulaguntzako gastu publikoan, sail eta batzorde desberdinen arteko deskoordinazioak saihestea, udalaren laguntza-jarduerari buruzko ikuspegi globala edukitzea, herritarrek errazago izatea diru-laguntzak lortzeko bidea, berme handiagoa lortzen baita gardentasunean, irizpide berdintasunean eta lehia librean, bai eta horri buruz udal kudeaketaren arrazoizko erabilera bat lortzea ere, dagokion plangintza globalaz, prozeduren sistematizazioaz eta emaitzak ebaluatuz.

Horregatik, datorren urteetan onartu daitezkeen aldaketa edo egokipenen kaltetan gabe, 2016-2019 epealdirako (oraingo legealdia bukatu arteko epea) Diru-laguntzen Plan Estrategikoa prestatzea erabaki du Arrasateko Udalak, bai legeak agindutakoa betetzeko, eta baita honen helburuak lortze aldera.

Aurkeztu den Plan Estrategikoan Arrasateko Udalak ematen dituen diru-laguntza programa eta lerro guztiak jasotzen dira, bakoitzean ondorengo aspektuak zehaztuz:

- Lortu nahi diren helburuak.
- Diru-laguntzaren modalitatea.
- Nori dagoen zuzendua programa edo lerroa
- Zenbatekoa
- Aurrekontu aplikazio

Plan Estrategikoa aztertu eta gero, Ogasun Batzordeak, aho batez, hauxe proposatu dio Udal Plenoari:



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

LEHENENGO.- Onartzea 2016/2019 epealdirako Arrasateko Udalaren Plan Estrategikoa (Ikus eranskina).

J.L MERINO (IRABAZI):

Aclararme una cosita, el anexo no lo he leído quedaban fuera las subvenciones la aprobación de subvenciones en el tema de Lanbide ¿no? ¿No quedaban fuera?

I.BALZATEGI (KONTUHARTZAILEA)

Kontuhartzaileak adierazi du diru-laguntza horiek sartuta daudela baina oinarriak atera aurretik hainbat aspektu argitu beharko direla (*Idazkariak gaineratutako zehaztasuna, ez dago grabazioan, Kontuhartzaileak ez daukalako mikrofonorik*)

13.- ARRASATEKO HIRI ANTOLAMENDUAREN EGITAMU OROKORRAREN TESTU BATERATUA BEHIN BETIKOZ ONARTZEKO PROPOSAMENA. (2011HPOA0001)

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza eta Mugikortasuneko Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Udal Plenoak, 2015eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, besteak beste, erabaki zuen Behin behineko onartzea “ARRASATEKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRA”ren agiria, eta baita “BEHIN BEHINEKO ONESPENERAKO EGINDAKO ALDAKETAK” agiria ere.

Espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordera bidali zen eta COTPV-k egindako bi bilkuretan, 2015eko irailaren 16an eta urriaren 14an, erabaki zuen ontzat ematea HAPO osatzen zuen dokumentua aldaketa batzuekin.

Bestalde, plan orokorraren jasangarritasunari buruzko txostena eta bere Eranskina Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzara bidali ziren, organo horrek zegokion behin betiko ingurumen-memoria egin zezan. Halaber, dagozkion arloko txostenak eskatu ziren.

2015eko irailaren 24an, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak babes publikoko etxebizitzaren estandarra transferitzeko baimena ematea agindu zuen.

2015eko irailaren 24an, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak HAPO-k bizitokietarako estandarra betetzeko proposamena onartzea agindu zuen.

2016ko otsailaren 24an HAPOren Berrikuspenaren behin betiko ingurumen-inpaktuaren txostena egin du Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Administrazioaren zuzendariak.

Aurrekoa dela eta, Udalaren Zerbitzu Teknikoek Arrasateko hiri antolamenduaren egitamu orokorraren testu bateratua idatzi dute. Testu bateratu horrek honakoa jasotzen du:



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

1.- Udal Plenoak, 2015eko maiatzaren 12an egindako bilkuran onartutako “*Behin behineko onespenerako egindako aldaketak*” izeneko agiria. Agiri horretan alde batetik, egitamu orokorra hasiera batean onartu ondoren aurkeztu ziren alegazioei emandako erantzunen ondorengo aldaketak jaso ziren eta, bestetik, burututako azterketa prozeduran azaldutako gaien inguruko planteamenduei buruzko aldaketak. Dokumentu horrek jaso zuen, baita ere, Ingurumen jasangarritasunari buruzko testuaren Eranskina, zeinek aztertzen duen HAPOn egindako aldaketek zein eragin duten ingurumen jasangarritasunean.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak (COTPV) hartutako erabakietatik, bata 2015eko irailaren 16koa eta bestea urriaren 14koa, ondorioztatzen diren zuzendu beharreko alderdiak. Aldaketa horiek, besteak beste, hurrengo hauek dira:

- Ingurune fisikoa Lurralde Antolamenduaren gidalerroetara egokitzea.
- Ingurune fisikoa EAEko Ibaien eta Erreken Ertzen Antolamendurako Lurraldearen Arloko planera egokitzea.
- Eremu libre eta ekipamenduak Debagoienako Lurraldearen Zatikako Planak, eta indarrean dagoen Gipuzkoako Hiri hondakinen Azpiegituren Lurraldearen Arloko Planak ezarritakoarekin bateratzea.
- Babes publikoko etxebizitzaren estandarra transferitzeko proposamena araudian berariaz zehaztea.
- Hirigintza eraikigarritasunaren handipenak araudian berariaz zehaztea.
- Uraren arloan, urperagarritasunaren inguruko egokitzapenak jasotzea.
- Erauzketa jarduketan mugaketak jasotzea.

3.- Telekomunikazio eta antena instalakuntza gaien inguruan egin beharreko hainbat aldaketa lotesleak, Industria, Energia eta Turismo ministerioak 2015eko uztailaren 1ean bidalitako komunikazioaren arabera.

4.- 183/2003 Dekretuak, 2003ko uztailaren 22koa, ingurumenaren gaineko inpaktuaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duena, ezarritakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Administrazioaren zuzendariak emandako ingurumenaren gaineko eragileari buruzko txostena kontutan izanik, 23.artikuluaren zehaztutako adierazpena idatzi da.

5.- Sortutako aldaketa berriak, funtsezkoak ez direnak eta hiru jatorri ezberdin dituztenak. Bat, HAPOn bete beharreko araudiaren aldaketaren ondorio dira. Bi, behin-behineko dokumentuaren aurrean herritarrek egindako eskaera berriak dira, eta beste biak, ordea, testu bateratuaren lanketan sakondu ondoren aurkitutako alderdi batzuen egokitzapena dira. Aldaketa horiek jarraian jasotzen dira:



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

- Atxabal, Otarreta II, Arlaban, Dolarra eta Txara I haitzuloak dokumentuan jasotzea Kultura-ondasun gisa, Monumentu Multzo-kategoriarekin.

- Legargain kalea 3.ko aparkaleku-erabileradun solairuaren azalera eta lerrokadurak egokitzea.

- Irakaskuntzara bideratutako Santa Teresa izeneko ekipamenduaren partzelari dagokion eraikigarritasuna handitzea.

- Etxebizitza erabileradun eraikinen arotzeria baldintzak zehaztea.

- Pergolen erabilera arautzea.

Udalaren Zerbitzu Teknikoek egindako txostena ikusirik, eta Eusko Legebiltzarraren 2/2006 Legearen (lurzoruari eta hirigintzari buruzko legea, ekainaren 30ekoa) 104, 90 eta 91 artikuluetan xedatutakoaren arabera, hauxe proposatzen dio Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko batzordeak Udal Batzarrari:

I.- Behin betikoz onartzea “ARRASATEKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRA”ren Testu Bateratua.

II.- Testu bateratuaren ale bat Foru Aldundiko planeamendu agirien errejistrora igortzea, bai paperean eta bai euskarri informatikoan.

III.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea behin betiko onespren akordioa eta egitamuaren hirigintza araudia, goian aipaturiko errejistroan jaso dela adieraziz.

Halaber, argitara emango da Ingurumenaren gaineko eraginari buruzko txostenaren inguruan hartutako erabakiari buruzko adierazpena, 183/2003 Dekretuak ezarritakoaren arabera.

IV.- Behin betiko onespren akordioa lurralde historikoan hedadura duen egunkarian argitaratzea.

V.- Akordioa Euskal Herriko Lurralde Antolaketaren Batzordeari jakinaraztea.

VI.- Espedientearen ale oso bat, paperean eta diligentziatua, Euskal Herriko Lurralde Antolaketaren Batzordeari bidaltzea. Eta baita ere bidaltzea, behin betikoz onartutako dokumentuaren ale bat, euskarri informatikoan.

VII.- Telekomunikazioen arloan Industria, Energia eta Turismo ministerioari bidaltzea testu bateratuaren ale bat euskarri informatikoan.

VIII.- Abiazio zibilaren arloan Fomento ministerioari bidaltzea testu bateratuaren ale bat euskarri informatikoan.



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

14.- BERE GARAIAN SINATUTAKO HITZARMENAK DIOENA BETETZEKO, UDALAREN ESKUETAN GERATU BEHAR DIREN TXAETA KALEA 14-16-18 ZENBAKIETAKO ERAKINEN LOKALEN LAGAPENA ONTZAT EMATEKO PROPOSAMENA. (2014HHIR0017)

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza eta Mugikortasuneko Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.” (VISESA) elkarteak A.E. 80.-Zerrajera 2 esparruan F partzelan (TXAETA KALEA 14-16-18 zenbakietan) 140 Babez Ofizialeko etxebizitza eraiki ditu.

2001ko maiatzaren 3an Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak eta Arrasateko Udalak sinatutako Lankidetzako Hitzarmenaren arabera, aipatutako partzelan eraikitako eraikinen lokalak Udalaren eskuetan geratu behar dira.

TXAETA KALEA 14-16-18 zenbakietako eraikinetako lokalak, Udalaren eskuetan geratu behar direnak, hauek dira:

* Txaeta kalea 14-etxabearen kokatzen den lokala, Obra Berriaren Aitorpenean merkataritza lokal 1 moduan izendatuta dagoena eta 270,33 m²ko azalera erabilgarria duena.

* Txaeta kalea 16-etxabearen kokatzen den lokala, Obra Berriaren Aitorpenean merkataritza lokal 2 moduan izendatuta dagoena eta 188,28 m²ko azalera erabilgarria duena.

* Txaeta kalea 18-etxabearen kokatzen den lokala, Obra Berriaren Aitorpenean merkataritza lokal 3 moduan izendatuta dagoena eta 178,63 m²ko azalera erabilgarria duena.

Udalaren Zerbitzu Teknikoek egindako txostena ikusirik, hauxe proposatu du Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko batzordeak:

I.- Udalaren eskuetan geratu behar diren TXAETA KALEA 14-16-18 zenbakietako eraikinen lokalak lagapena ontzat ematea.

II.- Alkateari, edo legez ordezkatzeko duen alkate-ordezkaritari, ahalmena ematea aipatutako lokalak lagapena formalizatzeko behar den eskritura publikoa sinatzeko.

15.- PROPOSAMENA ZEHARKALE ESTALIA 1, 2. B HELBIDEAN DAGOEN ETXEBIZITZA EROSTEKO. (2015HERO0002)

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza eta Mugikortasuneko Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Hainbat gestio egin dira Udalak erosi dezan Zeharkale Estalia 1, 2. B helbidean dagoen etxea erosteko; haren datuak dira:

JABEA: MARIA TERESA FERNANDEZ MATEO ANDREA.



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

ERREGISTROKO DATUAK: Inskribatua Bergarako Jabetza Erregistroan, tomoa 814, liburua 484, folioa 63, Arrasateko finka 3987.

DESKRIBAPENA: HIRIKOA.- ZENBAKIA HAMAR.- BIGARREN SOLAIRUKO EZKERRALDEKO BIGARREN ETXEBIZITZA, izen aduena bigarren B, Cantón Cubierto (gaur Zeharkale Estalia) zenb. bat, señalada con los NUMEROS DOCE Y CATORCE DE LA CALLE JOSE MARIA RESUSTA KALEA HAMABI ETA HAMALAU ZENB.ekin adierazia (gaur ITURRIOTZ KALEA) ETA GENERAL FRANCO KALEA HAMAHIRU (gaur ERDIKO KALEA) Arrasaten; neurria du HIRUROGEITA HAMAR METRO KOADRO eta dauka lau logela, atondoa, korridorea, sukaldea eta komuna, etab i balkoi Resusta aldera (gaur Iturriotz) eta hiru leiho barne patioa. Mugak: Iparrean, eskailera eta 2.C etxebizitza edo 11. lokala; Hegoan, Resusta kaleko hegala (gaur Iturriotz) eta 2.C etxebizitza edo 11. lokala; Ekialdean, 2.A etxebizitza edo 9. lokala; eta Mendebaldean, barne patioa eta 2.C etxebizitza edo 11. lokala; AKZESORIO moduan dauka ganbara bat zortzi metro koadro ingurukoa, korridore bukaeran eskuman, leiho batekin barne patioa; eraikin osoari buruz haren balioa da LAU EHUNEN.

Etxebizitzaren neurria da 70 m².

Finkak ez du kargarik.

Baina zer interes dago etxebizitza hori erosteko?. Hona hemen horretarako arrazoiak:

a.- Jarraitzea lehendik Udalak hasitako jardunarekin, hau da, etxebizitzak eta lokalak erostea eraikin horretan, Udaletxearen mugei erantsita baitaude, gerora begira hirigintza integraleko esku-hartze bat egiteko horri buruz.

b.-Erosi nahi dugun etxebizitzak muga egiten du udal bulegoetako lokalen mehelinarekin, eta etxebizitza dago orain Hirigintza sailak hartzen dituen bulegoen gain-gainean.

Horregatik, balio dezake udal bulegoak handitzeko, izan ere, muga egiten duenez sarbide izan lezake zuzenean Ingurumen saileko bulegoetatik.

Etxebizitza hori baloratzeko txostena ikusita, udaleko zerbitzu teknikoek egina, eta saltzailea ados dagoela adierazi duenez.

Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko Batzordeak akordio hau hartzea proposatu du:

I.-Onartzea etxebizitza eta haren akzesorioa (ganbara) erostea MARIA TERESA FERNANDEZ MATEO andreari, Zeharkale Estalia 1, 2.B helbidean dagoena; haren datuak dira goian adierazi direnak.

Etxe eta akzesorio horren eskualdatzea kargarik eta grabamenik gabe eginda .

II.- Finkatzea aurreko salerosketaren prezio moduan EHUN ETA HOGETA HAMAZORTZI MILA ETA HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMAR EURO (138.350 €).



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

III.- Gastuak, salerosketaren eskritura emateko eta Jabetzaren Erregistroan inskribatzeko, Arrasateko Udalaren kontura doaz, eta hiri lurren balio gehitzeari buruzko zerga saltzailearen kontura.

IV.- Ahalmena ematea alkate-udalburuari, edo legez ordezkatzeko duen alkateordeari, salerosketa eskritura emateko.

J.L MERINO (IRABAZI):

Esto es la compra ¿no? Luego vendrá la obra que hacer ¿no? Digo yo. Mientras se saca a concurso la obra ¿puede tener otro uso transitorio? Esta vivienda

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Bueno ni erantzungo dizut nik dakitenaren arabera, etxea erosi du udal honek beste etxebizitza batzuk erosita dauzka obra egin barik, eraikin berdinean eta da politika berdinean jarraitzea. Legealdi honetan ez dugu aurreikusten pisu horretan obrarik egitea eta zuk hemen mahai gainean jarri duzun aukera hori transitorioan beste erabilpen batzuk izatea. Bueno nik uste dut posible agian izan daitekeela eta hori adibidez gizarte ongizate batzordean tratatu daitekeen gai bat izan daitekeela eta interesgarria izan daitekeela nien bitartean ba beste erabilera bat ematea.

Norbaitek zeozer gehiago honi buruz.

16.- DESJABETZEKO ESPEDIENTEA D ATALEKO LANAK (AUZOKO GARBITOKIA ETA ITURRIA EGOKITZEA) EGITEKO BEHAR DIREN ONDASUNAK ESKURATZEKO, UDALA-BESAIDE BIDEAREN ETA HAREN INGURUAREN NATURA ETA KULTURA BALIABIDEAK ERREKUPERATU ETA HOBETZEKO TESTU BATEGINAREN OBREI DAGOKIENEZ: ERREKURTSO BAT LUIS M^a MURGOITIO JAUNAK AURKEZTUA OSOKO BILKURAN HARTUTAKO AKORDIO BATEN AURKA, ONDASUNEN ZERRENDA BEHIN BETIKO ONARTZEARENA. (2015HDJA0002)

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza eta Mugikortasuneko Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Luis M^a Murgoitio Azcoaga jaunak idatzi bat aurkeztu du, errekurtsio gisara, 2016ko otsailaren 2an osoko bilkuran hartutako erabakiari dagokionez; horren arabera, behin betiko onartu zen desjabetzeak eragindakako ondasunen eta eskubideen zerrenda, “Udala-Besaide bileraren eta haren inguruaren natura eta kultura baliabideak errekuperatu eta hobetzeko testu bategina”ren D Fasean (auzoko garbitokia eta iturria egokitzea) jasota datorren jarduna exekutatzeko.

Luis M^a Murgoitio Azcoaga jaunaren idatzian, desjabetzeak afektatzen baitu, eskatzen du labor-labor, desjabetu behar den guneak ez duela ezelako baliorik eta, hortaz, ez duela nahiko



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

entitaterik izaera publikoa izateko. Gainera, uste du neurritz kanpoko delat desjabetzea 1.856 m²-ko partzela bat, iturriak eta garbitokiak hartzen dutenean 224 m²-ko azalera bat.

Bestalde, eskatzen du konpentsatu dakiola balio batekin, hemen aipatzen diren elementuen baliokidea dena: - Bideak errekuiperatzea, Udala auzoko finkak erregularizatzeko proiektuak kendu zituenak; -Euri-uren desbideratzea konpontzea, desbideratu zirenak iturriko deposituaren gainetik, Iturri landara isuriz urak; -Harrizko hormaren arazoa konpontzea Besaiderako bidean, Iturri landa horri eusten baitio; eta -Gereziondo bat kentzea Larrinetxe baserriaren hego-ekialdean dagoena, herri lurretan.

Txostena ikusita, Udaleko Zerbitzu Teknikoek egina, eta kontuan izanik:

1.- Desjabetzearen ondorioz datorren proiektuaren helburua da errekuiperatzea eta hobetzea Udala-Besaide bidearen natura eta kultura baliabideak. 2.- Udala-Besaide bide horrek balio handia du natura, kultura eta paisaia aldetik, eta horregatik hobetu eta errekuiperatu behar dira haren inguruko natura eta kultura baliabideak.

Baliabide horien artean elementu batzuk daude, hala nola Udala auzoko garbitokia eta iturria, proiektuaren D fasean jasota daudenak.

3.- D fase horrek, lortu nahi den helburuarekin bat etorrira, ez dakar bakarrik auzoko garbitokia eta iturria egokitzea, inguruko landaretza eta zuhaitzak errekuiperatzea ere bai, hemengo espeziekin; horrek ekarriko luke, gainera, Udalatx esparrua osotasunean hobetzea paisaia ikuspegitik.

4.-“Udala-Besaide bidearen eta haren inguruaren natura eta kultura baliabideak errekuiperatu eta hobetzeko testu bateginean” jasota datozen jardunak exekutatzek oinarria du bete beharra dagoela 7/1990 Legean ezarritakoa, uztailaren 3koa, Euskadiko Kultura Ondareari buruzkoa, eta 1/2014 Dekretuan ezarritakoa, apirilaren 15koa, zeinak onartzen baitu Euskadiko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina.

5.- Eskaerari dagokionez elementu horiek konpentsatzeko, adierazi behar da horrek ez duela zerikusirik desjabetzeko ondasunekin, eta, horren ondorioz, ez dela egokia hori aztertzean espediente honen fase honetan.

6.- Nolanahi ere, eskaera hori berretsi zuen agerraldira etorri zena 2016ko martxoaren 1ean, okupazioko alde zurreko akta egin zirenean, eta adierazi zitzaion interesdunari eskaera hori erantzungo ziola Udalak horiei buruzko gaiak aztertu eta gero.

7.- Ikusita gai honek, zerikusia izanez gero, lotura izan dezakeela prezio justua zehaztearekin, egokia izango litzateke erantzutea aztertzen hasten garenean zelan asebate prezio justu horren norainokoa.

8.-Azaldutako guztiarengatik, alegazioa ez onartzea baino ez dugu, eta berriro berretsiz hasitako desjabetzea legitimoa dela, bai eta jarduna ekarri duenaren interesa eta erabilera publikoa ere.



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko batzorde honek hauxe proposatzen du:

.- Ez onartzea berraztertze errekurtsioak darabiltzan oinarriak, Luis M^a Murgoitio Azcoaga jaunak aurkeztua, gorago adierazitako arrazoiengatik.

Edozelan ere, idatzian datorren eskaera erantzungo du Udalak, gaiaren inguruko hari guztiak aztertu eta gero, Udalak aztertzen duenean zelan asebate desjabetzearen ondasunen prezio justua.

17.- DESJABETZEKO ESPEDIENTEA D ATALEKO LANAK (AUZOKO GARBITOKIA ETA ITURRIA EGOKITZEA) EGITEKO BEHAR DIREN ONDASUNAK ESKURATZEKO, UDALA-BESAIDE BIDEAREN ETA HAREN INGURUAREN NATURA ETA KULTURA BALIABIDEAK ERREKUPERATU ETA HOBETZEKO TESTU BATEGINAREN OBREI DAGOKIENEZ: ERREKURTSO BAT PILAR ZUBIA ANDREAK AURKEZTUA OSOKO BILKURAN HARTUTAKO AKORDIO BATEN AURKA, ONDASUNEN ZERRENDA BEHIN BETIKO ONARTZEARENA. (2015HDJA0002)

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza eta Mugikortasuneko Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Pilar Zubia Arana andreak idatzi bat aurkeztu du, errekurtsio gisara, 2016ko otsailaren 2an osoko bilkuran hartutako erabakiari dagokionez; horren arabera, behin betiko onartu zen desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen zerrenda, “*Udala-Besaide bilearen eta haren inguruaren natura eta kultura baliabideak errekuuperatu eta hobetzeko testu bategina*”ren D Fasean (auzoko garbitokia eta iturria egokitzea) jasota datorren jarduna exekutatzeko.

Pilar Zubia Arana andrearen idatzian, desjabetzeak afektatua, eskatzen du labur-labur, ez desjabetzeko bere lursailekin partzelaren ipar mugaren artean dagoen lursail zatia, hau da, dagoen hormatxoak eta larrearen mugarekin bat datorren desmontearen tontorrak sortzen dutena. Eskaera onartzen ez bada, errekurtsioan eskatzen du ondasunen eta eskubideen zerrenda zuzentzeko, jasoarazteko franja hori Pilar Zubia andrearen jabetzakoa dela.

Gainera, adierazten du sarbidea duela 09-18 partzelara, bere jabetzakoa, 09-19 desjabetzeak afektatutako partzelatik, eta, horren ondorioz, eskatzen du horretan mantentzeko pasabidea, leku berean.

Txostena ikusita, Udaleko Zerbitzu Teknikoek egina, eta kontuan izanik:

1.- Desjabetzeko proiektua exekutatzeko, ez da beharrezkoa lur franja hori, hormaren gainetik dagoena; hortaz, egokia da onartzea agerraldira etorri denak egin duen eskaera.

2.-Halaber, onartu daiteke sarbidea mantentzea aipatu partzelara, hala eskatu baitu.



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko batzorde honek hauxe proposatzen du:

.- Onartzea berraztertzeko errekurtsua, Pilar Zubia Arana andreak aurkeztua, goian adierazitako arrazoienatik.

Errekurtsuan datozen kontsiderazioak, zeintzuk onartu egin diren, jasota daude okupazio aurreko akten agirian, 2016ko martxoaren 1ean egin; errekurtsu egilearen ordezkariak ere etorri ziren.

18.- IURRETAKO EMAKUMEEN BIRA ZIKLISMO KIROL ELKARTEAK ANTOLATUTAKO “EMAKUMEEN EUSKAL BIRA” PROBAREN ETAPA BAT 2016, 2017, 2018 ETA 2019 URTEETAN DEBAGOIENENKO HERRIETAN EGITEKO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA MANKOMUNITATEAREN ESKU UZTEA ONTZAT EMATEA (2016AAUK0004)

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza eta Mugikortasuneko Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Iurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteak urtero, “EMAKUMEEN EUSKAL BIRA” izeneko proba antolatzen du.

Proba hau “emakumea eta kirola” sustatzen dituen ekimen bat da, bailarako gazteei emakumezko nazioarteko kirolari profesionalak gertutik ezagutzeko aukera ematen die eta erreferenteak eskaintzen dizkie.

Nazioarte mailako lasterketa da emakumeen txirrindularitza arloan, sona handikoa, kirol praktika eta ikuskizuna.

Ekintza honen bitartez, eragileen arteko inplikazioa sustatu eta diskriminazioari aurre egiteko berdintasunaren aldeko urratsak ematen dira, guztion alde.

Hau guztiagatik, azken urteetan Debagoieneko Udalek Iurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkartearekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatu izan dugu proba honen etapa bat Debagoieneko udalerriren batean egin ahal izateko.

Orain, Mankomunitateko Kirol Batzordean udal ordezkariak planteatu dute gai hau Mankomunitate bideratu eta koordinatzeko komenigarritasuna.

Ikusirik Debagoieneko Mankomunitatearen Estatutuen 7. artikuluan, non aipatzen den bere xedea, hirugarren atalean, "Udal-ekintza zehatzen koordinazioa" jasotzen dela, Udalek aurrez horrela erabaki ondoren.



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

KGBH batzordeak gaia aztertu ondoren, proposatzen dio Udal honetako Osoko Bilkurari, ondorengo erabakia hartzea:

- Mankomunitatearen esku uztea 2016, 2017, 2018 eta 2019 urteetan “Emakumeen Euskal Bira” probaren etapa bat Debagoienean egin ahal izateko Iurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkartearekin dagokion lankidetzaz hitzarmena sinatzea, ondoren zehazten diren klausulen arabera, eta aipatu hitzarmenetik eratorritako betebeharrak eta eskubideak gauzatzeko.

KLAUSULAK

1.- *Hitzarmen honen helburua da Iurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteak antolatutako “EMAKUMEEN EUSKAL BIRA” probaren etapa bat Debagoieneko herriren batean egitea 2016, 2017, 2018 eta 2019 urteetan, ondorengo xehakapenaren arabera:*

- 2016an: Eskoriatzan.
- 2017an: Antzuolan.
- 2018an: Aretxabaletan.
- 2019an: Oñatin.

2.- *2016ko gastua 9.000,- €-koa izango da. eta hurrengo hiru urteetako, 2017, 2018 eta 2019, beti ere froga WORLD TOUR zirkuituaren barruan badago, 12.000 €-koa, urte bakoitzeko. Debagoieneko Mankomunitateak Iurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteari honela ordainduko dio urtero aipatu zenbatekoa: %50a apirilaren 1a baino lehen, eta beste %50a maiatzaren 15a baino lehen.*

3.- *Urteko zenbateko hau honela banatuko da Mankomunitateko Udalen artean:*

- *Etapa egiten den herriko udalak: 4.500 € 2016an, eta 6.000,- Euro, beti ere froga WORLD TOUR zirkuituaren barruan badago, hurrengo hiru urteetan.*
- *Beste udalen artean: 4.500 € 2016an, eta 6000€ 2017an, 2018an eta 2019an, beti ere froga WORLD TOUR zirkuituan barruan badago, honela banatuta:*
 - *Tarteko helmuga (meta bolantea) duen herriko Udalak: 1.000 € 2016an, eta 1500 € hurrengo hiru urteetan, beti ere froga WORLD TOUR zirkuituaren barruan badago.*
 - *Gainerakoa herri bakoitzeko biztanleen arabera banatuta, tarteko helmuga duena barne.*

4.- *Iurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteak koloretako hiru orrialde utziko dizkio Debagoieneko Mankomunitateari probaren ibilbide-liburuan. Fotolitoak eta kartelean ipintzeko logotipoak Debagoieneko Mankomunitateak eman beharko ditu.*

5.- *Debagoieneko Mankomunitateak probaren aurkezpen ofizialean parte hartu ahal izango du, eta baita probaren inguruan egingo diren protokolo ekintza guztietan ere.*

6.- *Iurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteak lau metro hesi utziko dizkio Debagoieneko Mankomunitateari Irteeran eta beste lau metro Helmugan, Mankomunitateak emandako publikitateak aipatu Kirol Elkarteak jartzeko.*



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

7.- Iurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteak konpromisoa hartzen du etapen laburpenak emateko hainbat telebista-kanalean. Halaber, probaren zatiak zuzenean emango dituzte telebista kate publikoek eta lurraldeko beste kate pribatu batzuek.

8.- Iurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteak bermatu egiten dio Debagoieneko Mankomunitateari 900,00 euroko publizitate tarte bat izango duela GARA egunkarian urte bakoitzean. Publizitate hau etapa egiten den urte bakoitzean egin behar da, eta ez du inolako eraginik izango Mankomunitateak aipaturiko egunkarian egin obi duen publizitatean.

9.- Iurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteak egun bakoitzari dagokion trofeoa emango du, eta Debagoieneko Mankomunitateak erabakiko duelarik nori entregatzen duen trofeoa. 2017tik 2019ra bitarteko edizioetan, urte baten lasterketaren azken etapa Debagoieneko Udalerri batean izango da. Arestian aipatzen diren baldintzetan, hau da, ez du izango inongo koste gehigarririk.

19.- ALKATETZAKO BI EBAZPENEN BERRI EMATEA: NEKAZAL AUZOETAKO ALKATEEN BERRESPENA ETA ITURBIDE EGOITZAKO LEHENDAKARITZAREN DELEGAZIOA. (2015SKOR0001)

Besteak beste, Arrasateko Udaleko Araudi Organikoaren 26.4 artikulua baita, Udal Plenoari, Alkateak, hurrenez hurren, 2016ko otsailaren 23an eta martxoaren 1ean hartutako ebazpenen berri ematen zaio:

-ALKATETZAREN ERABAKIA N16/00384

Auzo Alkateen izendapenak berrestea (nekaçal auzoak)

Azken hilabeteetan, Arrasateko nekaçal auzotan bizirik diren auzokideek beren Auzo Alkateak hautatu dituztela ikusirik,

Alkatetza honek, Udal Araudi Organikoaren 50.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, ondorengo

ERABAKI DU:

LEHENENGO.- Berrestea jarraian adierazten diren nekaçal auzoetako Alkateen izendapen hauek:

Auzoa

Alkatea (Izen abizenak)

Meatzerreka nekaçal auzoa

IGNACIO ZUAZUBISKAR LOPEZ DE VERGARA

San Andres nekaçal auzoa

JON AZKOAGA UGALDE



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

Udala nekazal auzoa

AITOR MURGOITIO AZKOAGA

Gesalibar nekazal auzoa

MANEX BARRENETXEA IÑARRA

Garagartza nekazal auzoa

JOSE MARIA BLANCO CONDE

Bedoña nekazal auzoa

JOXE MARI UNZUETA SUDUPE

BIGARREN.- Dekretu honen berri izendatutako Alkateei, Udalean ordezkaritza duten talde politikoetako udal bozeramaileei eta Udal Plenoari ematea egingo duen hurrengo bilkuran. Aldi berean, Udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da.

HIRUGARREN.- Musakola, Zalduspe eta Uribarri nekazal auzoetako Alkate eta batzordeen inguruko jakinarazpenik ez denez jaso, berresteko gelditzen dira auzo horietako Alkateen izendapenak

-ALKATETZAREN ERABAKIA N16/00465

ITURBIDE EGOITZAko erakunde autonomoaren Lehendakaritza delegatzea

N 15/02956 dekretuaren bidez, 2015eko abenduaren 30ean, Amaia Azpiazu ARanburu zinegotziarengan eskuordetu zela Gizarte Ongizate Batzorde Informatzaileko Lehendakaritza eta haren alde egin zela gizarte ongizateko hainbat gairen inguruko eskuordetze espezifikoa, aurrez delegazio horiek zituen Igor Urizar Murgoitio jaunak horiei uko ezin zirelako.

Akats baten ondorioz, dekretu berean ez zela egin Iturbide Egoitzako erakunde autonomoaren Lehendakaritzaren delegazioa, baina, lehenengo momentutik Igor Urizar Murgoitioaren uko egiteak, Iturbide Egoitzako erakunde autonomoaren Lehendakaritza ere barne hartzen zuela ulertu zela.

Erakundearen estatutuek eta indarrean dagoen legediak ematen dizkidan eskurantzak erabiliz,

ERABAKITZEN DUT:

LEHENENGO.- Ondoren adierazten den zinegotziarengan eskuordetzea Iturbide Egoitzako Lehendakaritza, erakundearen estatutuek eta indarrean dagoen legediak ematen dizkien eskuduntzekin:

➤ **ITURBIDE EGOITZA: AMAIA AZPLAZU ARAMBURU**

BIGARREN.- Delegazio honi 2015eko abenduaren 30eko datako atzeraeragintasuna aitortzea.



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

HIRUGARREN. Dekretu honen berri ematea eskuordetutako zinegotziari, jakinarazpena jaso eta hurrengo biru egunetan onar dezan; honen aurrean ezer adierazten ez badu, eskuordetutako eskuduntza tazitoki onartu dela ulertuko da.

LAUGARREN.-.- Erabaki honen berri Udalbatzarrari ematea egingo duen hurrengo bileran eta, aldi berean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea eta interesatuei jakinaraztea

20.-ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI HARTZEA

Udal Plenoa jakinaren gainean gelditzen da.

21.- GALDE-ESKEAK.

P. ENCINAS (EH-BILDU):

Zuen aurrean eta nire buruarekin autokritika zorrotz bat egin nahi dut Oskarrek eduki dudan eztabaidan, nik uste dut nire iritziz hitz bat gehiegi esan dudalako. Barkamena ez dut eskatzen askotan baliogabea dagoelako baina hala eta guztiz ere kasu honetan nik autokritikari barkamenari baina inportantzia garrantzitsuago ematen diot. Orduan, jakiteko mingaina edo burua berotu zait.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Eskerrik asko Piter.

J.L MERINO (IRABAZI):

Se trató una moción en septiembre la presentaba la plataforma de STOP DESAHUCIOS de debagoiena, en la cual se aprobó el punto cinco decía “esta ayuntamiento ante la comunicación de un desalojo o un desahucio mediara con la entidad financiera o administrativa para parar el desahucio, evitando en su caso que la policía municipal acuda junto a la comisión judicial”

Bien el 9 de febrero en Arrasate hubo una petición por parte de una comitiva para acudir a un domicilio de Arrasate, no voy a decir la calle. Luego al final no vino la comisión se suspendió pero claro eso no tenemos ningún conocimiento del juzgado también en el punto seis de esa misma moción este ayuntamiento reclamara a los juzgados competentes que se le notifiquen todos los casos que puedan conllevar lanzamiento o desahucio. Con eso quiero decir ¿dónde van las mociones? ¿Que se hacen con las mociones?

Las aprobamos y luego se quedan en papel mojado se quedan aquí en cima de la mesa y nadie. No hay seguimiento de esos acuerdos.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

Kasu honetan beti bidaltzen dira eta segimendua saiatzen gara egiten. egia da askotan erantzuten ez dutenean batzuetan emailak bidaltzen ditugula eta desjabetzen inguruan nik otsailak 9koa ez nekien baina bai iritsi nire mahaira beste desjabetze posible baten espedientea orain dela hilabete batzuk eta horren berri bageneukan eta horren gainean bageunden baina bueno egia da nik otsaileko 9koa ere ez dugula jaso. Ez dakit Amaiak begiratuko du baina mozioak beti bidaltzen dira juzgatura ziur nago eskutitza bidaliko zela baina bueno gero guri juzgatuak kasu egitea edo ez kasu egitea ba ez dakit ba zelan egin dezakegun denon artean horrei bidea emateko ze legalki ere ez dakit hori zelan lotu ahal izango dan egia da esaten dotzut bai egon dela desjabetze posible baten espediente eta hori bai iritzi zen nire mahai gainera gizarte zerbitzuen gure gizarte zerbitzuen bitartez, baina klaro gure gizarte zerbitzuetara iristen ez diren kasuak jakitea ba pentsatzen dot zaila izango dela, baina bueno guk modua bilatzearen aldekoak bagara

J.L MERINO (IRABAZI):

Yo creo que se debería de insistir al juzgado de Bergara que es el que lanzan los desahucios en que por favor que cumpla porque al final van a venir y van a pasar en Arrasate va a pasar.

Si por lo menos no se si los organos sociales que andan por ahi no se si las personas que andan por ahi en este tema que puedan por lo menos paralizarlo por lo menos de momento.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Guk udaletxe bezala ez daukagu inongo arazorik guztiz kontrakoa ez laguntzeko guztizko prestatasuna daukagu eta horren gainean zuri ere eskaria egiten dizut STOP DESAHUCIOSen plataformaren kide zaren heinean eta agian zuk plataforma horren kide zaren heinean eduki dezakezu gu baino errazago informazio hori ailegatzeko modua eta eskertuko genizueke zuk informazio hori jasotzen duzunean udaletxera ekarriko bazenu informazio hori eta horrela guk hemendik ere gu zerbait egin ahal zango genuke.

J.L MERINO (IRABAZI):

La moción trataba de eso de la colaboración entre la parte social y la parte institucional para intentar evitar ese problema se hara así.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Beste galdera eskaerarik dago ba orduan eskerririk asko denei eta amaiera ematen diogu gaurko bilkura luze honi

Eta beste gairik ez dagoenez, Udal Plenoburuak, arratsaldeko 21:20tan, amaiera ematen dio bilkurari. Eta nik Idazkariak hori guztia ziurtatzen dut akta hau jasoz.



Esp.-kodea: 2016SAPL0002

Arrasaten, 2016ko martxoaren 22a

IDAZKARIA

LEHENDAKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta

María Ubarretxena Cid